

Karkara

karkara.eus

 **Orioko eta Aiako aldizkaria** · 2016eko otsailaren 26a · 370. zenbakia. 26. urtea



Berreraiki, erori baino lehen

Kantauri isurialdean zutik dagoen azken ontziola erosi du Orioko Udalak Aldundiaren laguntzaz. Mutiozabal berreskuratuko dute orain.

8

Elkarrizketa
Aitziber Agirre

19

Adarretatik helduta
Antonio Campos

26

Erreportajea
Xaltxerak

30

Kritika
Olatz Zugasti

Egin zaitez Karkara laguntzaile

DATU PERTSONALAK...

IZEN-ABIZENAK

NORTASUN AGIRIA

HELBIDEA

TELEFONOA

EPOSTA

KONTU ZENBAKIA

ORDAINKETA KOPURUA

GUTXIENAKO 36E

EUSKO GUDARI, 4 IREKIERA BERRIA

zure arrandegia



KAIUA
sistema

Tipi-tapa, tipi-tapa, kaiuara
bokata ederrak jatera

Anibarko portua 35, behea
Tf.: 943 840 060



KORTABERRI
arotz lanak

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com

665 70 33 47



2GURPIL

Baxoalde 2 - 3 • 20810 Orío (Gipuzkoa)

T/ 943 835 980 W/ www.2gurpil.com E/ bigurpil@hotmail.com



Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99

370

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.eus

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Erredaktore burua

Miriam Garcia

Erredakzio taldea

Onintza Aiestaran,
Olatz Artola,
Lore Berasaluze,
Iñigo Exposito,
Jon Garate,
Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzkudun

Publizitatea

Idurre Telleria

Ale honetako kolaboratzaileak

Antonio Campos,
Iñigo Gaiton,
Rosi Lazkano
Jokin Salsamendi.

Diseinua

Saioa Perona

Azaleko argazkia

Iban Egiguren

Banatzaileak

Rodolfo Jimenez,
Leire Bravo (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

TOKIKOM



LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Rosi Lazkano bertso egunean. ARGIA

HASI BERTSOTAN

ROSILAZKANO (DOINUA: GOGORATUKO ZARA HERRIKO JAIETAN)

Gaia: Zikloa, I.

Bertso eguna, Donostia. 2016/01/30

1

Zaharrak berri dion
haritik tiraka
gogo berehala
doa pirrilaka
nahiz denboran txokoan
lotsan hautsak tapa
irripar bat sortzeko
ahalmena dauka.
Nahiz denboran txokoan
lotsan hautsak tapa
bizi-bizirik dago
a(d)itzen dut tik-taka.

3

Txarolezko zapatak
galtzetin zuriak
neska txikiarentzat
momentu handiak.
Egun berezietan
janzteko jantziak
ahizpa zaharragon batzuk
aurrez erantziak.
Egun berezietan
janzteko jantziak
begiratuta garbi
neuzkan belarriak.

2

Nire lehen ipuina
zen kristau dotrina
isilik egon behar
hizkuntz asko baina:
etxeokak euskaraz,
mezetan latina,
Santa Anako mojak
gaztelera fina...
etxeokak euskaraz,
mezetan latina,
eta nexkak eraman
behar mantelina.

4

Astelehen goiza beste
denen desberdina
sukaldea betean
arropa zikina
goiz osoan burrunban
xaboi-ur-makina
lehenengo maindirea
gero galtza urdina.
Goiz osoan burrunban
xaboi-ur-makina
automatikoa zen
amaren ezina.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gora Keta!

Otsailaren 6a zen, larunbata, negua udaberriz mozorrotuta etorri zitzaigun, epel-epel. Arratsaldean futbol partidua Mendibeltzen: Orioko FT-Keta. Partiduaren atsedendian, mutil gazte ilehori aleman itxurako bat ikusi genuen aurrean pasatzen, kaki koloreko eta kutsu militarreko alkan-dora zeraman soinean, boy scouten zapi lepoan zintzilik, nazien gurutze gamatu handi bat besokoan, esbastika beldurgarria, Hitlerren apologia nabarmena eginez. Susto handia hartu genuen, baten bat haserretu ere bai: *inorkez al du atxilotu behar!*

Bigarren denboran sartuta, getariarren aldeko batek hauxe oihukatu zuen: *Gora Keta!*, eta belarrian horrelako zartada bezalako bat eragin zigun, joandako denboretako oihuen oihartzuna; eta pentsatu nuen: *letra bat gora-behera, gaizki ulertzen baditek, hi ere eramango haute!*

Gero konturatu nintzen, zelaatik atera eta mozorroz jantzitako ume jendea ikusten hasi nintzenean, *klaro, inauteritan gaudek eta gazte nazia ere neguko eguraldia bezala mozorrotuta zitxian*, eta *Gora Keta!* zioenak ere inauteriko esaldi tranpa bat bota zigun, txantxetan. Ez dakit zergatik *Getari, joiok zakila paretari* etorri zitzaidan gogora. Orduan ulertu nuen dena, orduantxe lotu nituen nire baitan egun hartan gertatu zitzaizkidan beste gauza xeble guztiak ere. Goizean Berrian Anjel Anduri irakurri nion Aian ahia ahitu egin zela, eta konturatu nintzen Anjel ere mozorroturik txantxetan ari zitzaiaela aiarrei, Zarauztik sustoa eman nahian.

Gutunetako argibideak

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektroniko honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko ize-nik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARA bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

Bazkal ondoren, eta Mendibeltzeko partidura joan aurretik, norbait entzun nion bi artista txotxongilo zale atxilotu egin zituztela Madrilen, haien txotxongilo batek pankarta batean *Gora Alka Eta* jarrita zeukalako. Orduan konturatu nintzen inauterietan ginela eta, jakina, atxiloketa hura txantxetan zela eta kaleko artista haiek askatu eta pankartako hitzetan erakutsitako grazia aparta saritu egingo zietela.

Hurrengo egunean jakin nuen ez zituztela askatu, baizik eta kartzelara eramane, eta zenbait jende haiantzako zigor gogorra ari zela eskatzen, serio zihoala hura dena, alegia atxiloketa ez zela izan inauteriagatik. Eta zeharo nahastu nintzen eta pentsatu nuen *hortaz, laster etorriko dituk Mendibeltzen ikusi nuen gazte naziaren bila, eta Gora Keta! oihukatu zuena atxilotzera*, eta

beharbada Anjel bera ere bai... Aurtentzen osokoa dugu inauteria. Gora inauteriatik! ■ **Mozorroa**

Mila esker trikitilariei!

Gabon eta Santa eskean gurekin kalez kale ibili ziren trikitilariei bihotzez eskerrak eman nahi dizkiegu. Urtero-urtero Euskal Herriko ohitura zahar hauek Orion ere jarraipena izan dezaten laguntzen digute herriko trikitilariak, giro aparta jarritz herrian beren soinuarekin. Mila-mila esker eta datorren urtean ere gure ondoan nahi zaituztegu! ■ **Orioko Herri Ikastola.**

Euskal Herriari oinez bira egiteko proiektua dugu

Euskal Herriari oinez bira egiteko proiektua dugu erronketako bat. Aurtentzen, hileko irteeren artean 6 etapa ditugu helburu horretarako. Erronka polita da eta aitzakia ezin hobea mendizalelasuna sustatzeko. Animatu eta parte hartu! ■ **Talai Mendi elkarte**

Muntoko aparkalekua

Muntoko aparkalekuaren egoera salatzeko idazten dut gutun hau, 50 bizilagun inguruko komunitate baten izenean. Bi urte baino gehiago daramatzagu aparkaleku horrek sortzen dituen hautsa, zarata eta kutsadura jasaten. Penagarria da etxea hautsez ez betetzeko leihoak itxi behar izatea. Ziur nago, Udalean daudenak hor bizi izango baliara konpondua egongo zela dagoeneko, Goiko Kaleko semaforoarekin egin zuten bezala.



FISIOTERAPIA

IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM
TF.: 943 130 577 685 718 595

LESIOAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAINTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)

Gasaren galdarak eta arropa garbigailuak hegoaldera begira ditugu, hau da, aparkalekura, eta bizilagun batek aldatu egin behar izan du galdara. Txosten teknikoaren arabera, hautsagatik izan da. Garbigailuekin ere antzerako zer bait gertatzeko beldurrez gara. Zer egin behar dugu? Udalari eskatu behar al diogu kalte-ordaina?

Etxeak eta terrazak hautsez betetzen dira, eta ia egunero aritu behar dugu garbitzen. Lotsagarria. Ez dut uste aparkalekuak baldintza minimoak betetzen dituenik, etxebizitzak oso gertu dituelako eta putzuetako urak usaina botatzen duelako.

Aldi baterako jarri zuten martxan aparkalekua, merkatariek eskatuta, baina Udaleko teknikariak ez ziren ados. Gainera, jarraipen bat egin dugu eta ikusi dugu dendak itxita daudenean egoten dela aparkalekua beteta. Bezero gaixoak hor aparkatu behar badute!

Aparkaleku gutxi daudela herrian? 40 metrora beste bat dago, handiagoa, eta askotan hutsik egoten da. TAO ordaindu behar ez denean ere –ia urte osoan– hutsa egoten da. Ez dut uler-

Okerrak zuzentzen

Azken Karkaran, 369. zenbakiko Karkarako 31. orrialdeko artikuluan, oker bat dago. Jartzen du "Ostegun santu egunean Juan Carlos Borboiak bere anai zaharra hil zuen tiro batez Donostian". Baina gertaera hori ez zen Donostian izan, Portugaleko Estoril hirian baizik, eta Juan Carlosen anaia Alfonso gazteagoa zen bera baino, ez anai zaharra. Hortaz, okerra zuzenduta.

tzen jendeak hor aparkatzea nahiago izatea, bertan dauden zulo, putzu eta lokatzarekin.

Ekainean Udalean idatzi bat aurkeztu genuen bizilagunok, gure kexa azalduz eta konpontzeko eskatuz. Otsaila iritsi da eta ez dugu erantzunik jaso. Badakigu plenoan landu dela gaia, baina ez dira ados jartzen: "garestiegia dela, landuko dugula..." Garestiak ere badira noizean behin "zuloak konpontzeko" egiten dituzten txapuzak, hauts

gehiago sortzen duten materialekin, gainera.

Guztiok dakigu lursail hori etxebizitza sozialak egiteko erabiliko dela, eta badakigu, baita, krisia dela eta proiektu hori asko atzeratuko dela. Bizilagunok Udalak sen ona erabiltzea eskatzen dugu, kontuan izatea beste guztiek bezala zergak ordaintzen dituen komunitate bat dagoela hor, eta beren bizi kalitatea urritzen ari dela. Gai hau konpontzeko egin beharreko guztia egingo dugu, aparkaleku hori itxi edo baldintza onetan jarri behar dela uste baitugu. ■ J.R.



ZORIONAK!

Taxista arduratsuei

Hasi da sagardo denboraldia eta inguruko –eta bereziki Hernani eta Astigarragako– sagardotegietan zeharo lanpetuta daude. Kuadrillakoekin urteroko zita dela, lanekoekin bazkaria edo kintakoekin afaria, sagardotegiak lepo daude garaiotan; sagardotegi garai da eta!

Sagardotegietako langileek ez ezik, taxistek ere lan ugari izaten dute orain, are gehiago alkoholemia kontrolak handitu eta alkoholometroari punta zorroztu ziotenetik. Lan asko, eta pazientzia ere franko eduki behar izaten dute sagardotegietara joaten diren sagardozaletan aguantatzeko.

Oraingoan berei eman nahi izan dizkiegu zorionak, parrandak ere eramangarriagoak egitegatik eta duten pazientziagatik!

HILDAKOAK

- Petra Iribar Elizalde, Aian, otsailaren 13an. 84 urte.
- Joseba Loidi Rezola, Orion, otsailaren 5ean. 62 urte.
- Manuel Lizaso Azpeitia, Orion, otsailaren 5ean. 89 urte.
- Prexenta Iraola Manterola, Orion, urtarrilaren 29an. 88 urte.

JAIOTAKOAK

- Brais Trillo Fernandez, Orion, abenduaren 23an.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27

Publizitatea kontratatzeko:

Karkara
688 859 682 (Idurre)
publizitatea@karkara.com



karkara.eus



Ikastolako ikasleak Santa Ageda egunean. KARKARA



Zaraguetako ikasleak mozorrotuta, plazan. KARKARA



Orioko neskak 2016 urtean irabazitako lehen estropadan. N. AGIRRE

Hamaika aitzakia festarako

“Hitz egiten ez ditugun gaiak mahaigainean jartzeko aukera izan zuten *Ximelen* bakarriketara joandakoek”

Lurra esnarazteko makilak hartu eta lurra kolpatzen zuten, neguko solstizioaren ondoren, Santa Ageda bezperan. Eliza katolikoak bere egin eta Agatari goratzarri egiteko makilen erritmoan koplak kantatzean datza.

Zaraguetako eta Ikastolako ikasleek ohitura zaharri heldu eta makilak eskuetan, kalez kale ibili ziren hileko lehen ostegunean, ostegun gizenean. Baina betiko koplak kantatu ordez berak sortutakoak abestu zituzten, agatari handietsi beharrean herriko hainbat istoriori egin zien keinu.

Inauterietan ere ikusi ziren herriari lotutako hainbat mozorro, Kalefiteko kirolariak eta Orioko animatzaileak, kasu. Mozorroetako batzuk herritarrek beren eskuekin edo etxeko mozorro-kutxako trapuekin osatutakoak, beste batzuk goitik behera erositakoak. Hamaika modu baitaude beste baten azalean jartzeko.

Azkenaldian euskal herritar askoren azalean sartuta ikusi dugu Ibon Gaztañazpi Herri People saioan. Gertutik ezagutu du hilabete honetan Gorka Eizmendi rally-gidariaren eta Haritz Olasagasti kopilotoaren egunerokoa. Abiadurak eta muga-mugan ibiltzeak dakarren adrenalina ere bizi zuen auto barruan.

Barrearen bidez barru-barruko korapiloak askatzeko sendagaia, edo mahaiaaren bueltan hitz egiten ez ditugun gaiak mahaigainean jartzeko aukera izan zuten Aitor Arregi *Ximelen* bakarriketara gerturatukoek.

Bakarriketan aritu ziren, bereziki sorreran, irabazteko kapaz zirela esanez. Konfidantza galdu gabe sinesgarritasuna irabazi dute, eta urteko lehen bi banderak. Izan dadila urteko lehena, baina ez azkena.

Aian kaleko euskararen erabilerak behera egin al du?



“Zaila da euskaraz egitera behartzea”

Jende berria etorri da, nahiz eta hemen kokatuta egon, kanpotik datozte eta kanpoko influentzia hori nabari da.

Gure gurasoek guztia euskaraz egiten dute. Guztia. Nik nire ingurukoekin egoeraren arabera egiten dut: bertakoak direnekin bai, euskaraz, baina kuadrillan bik erdipurdi hitz egiten badute, gaztelaniara jotzeko joera dut.

Haurrekin euskaraz, hori bai. Baina arazoa, oro har, helduagoetan dago. Zaila da gogor mantentzea. Gure hezkuntza gaztelaniaz izan da eta joera hori hor daukagu, zaila da euskaraz egitera behartzea. Eta orduan, batzuetan, gaztelaniaz hitz egiten dugu.

Joxemari Aierza

Udaleko langilea

“Berak ulertzeko gaztelaniaz hitz egiten dugu”

Orain ere asko hitz egiten da euskaraz. Kontua da kanpoko jendea etortzen ari dela eta bereke euskaraz ikasi arte guztiok gaztelaniaz egiten dugula. Haur txikiak dituzte, eta horiek ikasten dute, ikastolan beste haurrekin euskaraz hitz egiten dutelako. Baina gurasoak apenas erlazionatzen direnez, ez dute ikasten. Eta guk, berak ulertzeko, euskaraz ez dakitenez, gaztelaniaz hitz egiten dugu.

Etxe berriak egin dituzte eta horietara kanpoko jendea etorri da. Lotarako erabiltzen dute askok, egia esan. Baina jaietan-eta, plazara joaten dira eta orduan gaztelania entzuten da. Pena da, hemengo hizkuntza euskara baita.

Kontxisio Mancisidor

Jubilatua

“Gaztelaniaz egingo dute, lehen ere egiten zuten”

Nik uste dut gaur egun ere euskaraz hitz egiten dela, sentsazioa daukat Aian euskaraz hitz egiten dela. Kanpotik etortzen direnek ere ikasten dute. Ez dakit. Gaztelaniaz ere egingo dute, baina lehen ere egiten zen.

Guk ez genuen gaztelaniaz hitz egiten, ez genekielako. Baina zekienak egiten zuen.

Guri gogor egiten ziguten eskolan euskaraz hitz egiten bagenuen, zigortu egiten ziguten. Baina guk gaztelaniaz ez genekienez, euskaraz egiten genuen. Maisua erdalduna zen eta patio garaian ere ezin izaten genuen euskaraz hitz egin.

Juan Maria Azpiroz

Jubilatua



Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute Elhuyar aldizkariko zuzendari izendatu dute . KARKARA

“Oso gauza aberasgarria da zientziak zein norabide hartzen duen ikustea”

Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute

Elhuyar aldizkariko zuzendaria

Bederatzi urte eta gero lanera itzuli da. Kazetari lanak alboratu gabe, ikerlariek egindako lanen gainean idazteari eta Elhuyar aldizkaria zuzentzeari ekin dio orain hilabete gutxi. Pozik dago erronka berriarekin.

OLATZ ARTOLA

Biokimikan doktorea da Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute – Gasteiz, 1974–. Zientzialari gehien bideari segi eta ikerlari lanetan hasi zen. Ikerkuntza utzi zuen, baina ez zientzia. Elhuyarren hasi zen, zientzia dibulgazioan, kazetari. Urteak eman zituen ikerlariet ikertutakoaren gainean idazten eta Teknopolis saioan horren berri ematen, baina azken bederatzi urteetan lan utzialdian egon da, familia zaintzeko. Duela bi hilabete itzuli da Elhuyarrera.

Lanera bueltatu eta zuzendari postua duzu orain.

Bederatzi urte eman ditut etxean, ibilbide profesionalean eten bat egitea eta familiari tokia ematea erabaki nuen. Urte hauek guztiak horretan inbertitzea erabaki nuen. Eta, orain, erabaki bat hartzea egokitzen zitzaidan. Bueltatzea erabaki nuen, baina ez nuen espero zuzendaritza hartuko nuenik. Erronkak gustatzen zaizkidanez gustura eta pozik hartu dut.

Desberdina al da oso kazetari eta zuzendari lana?

Lan talde txikia denez, kazetari lanak egitea ere egokitu zait. Bederatzi urtean, kazetaritza oro har, asko aldatu da. Baliabide anitzagoak ditugu eta horretara egokitzen ari naiz.

Dibulgazio kazetaritzan aritu baino lehen, irakasle izan zinen unibertsitatean.

Hezkuntzan ere aldaketa handiak ematen ari dira. Denbora laburra eman nuen irakasle. Hezkuntza asko gustatu arren, unibertsitatean ez nuen nahi nuena aurkitu. Ez nintzen eroso sentitzen adituaren paperean.

Horrek ekarri du, eszedentzian egon naizen bederatzi urteetan, hezkuntzaren beste bide batzuk probatzea. Zingira proiektua sortu genuen eta hor egon naiz buru-belarri urte hauetan. Hor bai aurkitu dudala bilatzen nuena.

Eta zer da bilatzen zenuena?

Berdinetik berdinera kontatzea gauzak, ez izatea bat dakiena eta bestea ez dakiena. Bakoitzak, benetan, gustatzen zaiona ikasi ahal izatea, irakasleak ezarri gabe.

Egungo hezkuntza ereduari irakasleek ikasleekin botere harremana dutela uste duzu?

Botere harremana hezkuntzako estamentu guztietan dagoela uste dut, eta hori da hezkuntzako arazoetako bat.

Ikerketan ere aritu zinen. Zer gustatzen zaizu gehiago, ikertzea ala ikertzaileek ikertutakoaren berri ematea?

Ikerketa bereziki polita da, baina pazientzia handia behar da, motela baita oso. Kazetaritzak, alderantziz, abiadura handia du eta hori gustatu egiten zait.

Niretzat pribilegio bat da, egunero, munduko zientzialariet aurkitu eta esaten dituzten gauzen berri izatea. Oso gauza aberasgarria da zientziak zein norabide hartzen duen ikustea, ikuspegi orokorra ematen baitizu.

Garrantzitsua al da, bada, jakintza zabaltzea?

Ezin dugu utzi bakarrik zientzialarien gain, zientziaren norabidea nondik joango den erabakitzea. Batetik, ez dago kielako; eta, bestetik, denon ardura delako. Gizarteko beste alorretan bezala, hemen ere gizarte mailako ardura daukagu. Eta, horretarako, ezinbestekoa da informazioa izatea.

Diru publikoa ere ikerkuntzara bideratzen delako, ezta?

Bai, horregatik eta erabiltzen diren tekniketako eta potentzial

“Funtsezkoa da euskal ikertzaileen artean harremanak sortzea eta indartzea kultura zientifikoa sendotzeko”

handia dutelako, eta denon artean erabaki behar dugulako nora jo behar dugun.

Zer nolakoa da ikerkuntzaren egoera Euskal Herrian?

Gehiengoa Euskal Herriatik kanpo jasotzen dugu, baina Euskal Herrian ere gauza mordoa egiten ari dira. Elhuyarren, adibidez, funtsezkoa da euskal ikertzaileen artean harremanak sortzea eta indartzea, Euskal Herrian bertan kultura zientifikoa sendotzeko modua baita.

Sarritan arrotza egiten zaigu zientzia ulertzea. Zaila al da herriarrei ulergarria izango zaien moduan azaltzea?

Egin beharreko gauza bat zientziari beldurra kentzea da. Aldare batean bezala daukagu eta horrek traba egiten digu zientziara gerturatzen. Gure aurreiritziak kendu behar ditugu eta zientziak guri zenbat emateko daukana ikusi behar dugu. Zientzia ulertzeko irekita egon behar da eta horretan plazera bilatu behar da, ez beldurrez entzun. Irekita bazaude jasoko duzu.

Denon artean egin beharko dugun ibilbidea da, iristeko momentua gizartean zientzia kulturaren parte izango dena.

Eta, ikerkuntza euskaraz apenas egiteak ere eragina izango du ulerkortasunean, ezta?

Ingelesa gizarteko alor guztietan dago eta horietan ez du trabarik egiten, ez dakit zientzian zergatik egin behar duen... Gainera, gero eta joera handiagoa dago hemengo ikertzaileengan lana dibulгатzekoa.

Hezkuntzak ere alor horretan lan eginez gero, zientzia ulertzeko giltza gehiago izango dituzte gazteek, adibidez.

Umeek naturalki egiten dituzten esperimenduei tokia egin eta esperimendazio libre horiek zientziara gerturatu behar ditugu modu atsegin batean. Kontzeptu zailak azaldu beharrean, egunerokotasunera ekarri.

Aldizkariak zer bide hartzea gustatuko litzaizuke?

Gustatuko litzaidake etorkizunean zientzia gaien inguruko aldizkari gehiago egotea, gutxi izatea zerbaiten adierazgarri baita. Elhuyarri dagokionez, baliabide ekonomiko gehiago nahiko nituzke proiektu eder bat egiteko. Izan ere, hilabete-kari izatera pasa behar izan dugu eta gaurkotasan zientifikoarekin lan egiten dugunez hori traba da.

azkue



Tf: 943 130 438

azkue

Orioko Herri Ikastola



Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

edurretegia
ANTILLA
jaletegia



Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 09

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA



• komertzial instalazioak • beira bikoitza
• segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
• ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45



Zarautz
Hileta Zerbitzuak

➤ Hilerrien kudeaketa
➤ Hileta zerbitzu orokorrak
➤ Zerbitzu iraunkorra



Harrespil
Hilerri Zerbitzuak

Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxe: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net


Seguros Bilbao



Santi Barranco
Telf.: 618581398
Arizaga, 2 - 2º ezkerre
20810 Orrio (Gipuzkoa)
Orioko ordezkaria
e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak
fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

PIZZERIA KALETA



ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

tel/fax: 943 89 00 69
Bizkaia kalea, 4. 20.800 ZARAUTZ



ITURGINTZA · BEROGINTZA · GASA
URBIDE o.k.
ITURGINTZA · BEROGINTZA
GASA · BAINU ERAKUSKETA
Presupuestak konpromisoak gabe

Zaragueta Herri Eskola Orrio



telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

Katu Horia
albaitaritza klinika
ESTROPALARI, 10
20810 ORRIO
tel. 943 11 66 99



Larrialdiax
668 89 11 29
www.katuhoria.com

ASADOR XIXARIO



Eusko Gudarien Kalea, 2
Tel. 943 830 019 - ORRIO

II ZUEN ZOZKETA

Udara



Gizonak boletoak etxean jasotzen zituela komentatu zigun, harpideduna zelako. Gu, barrutik barrez, eta kanpotik serio.

Jokin Salsamendi

Horrela herrietako festak ezagutzeko aukera izan genuen 2014ko udan. Egon ginen herri bakoitzeko ogitarteko onenak saltzen dituzten tabernen gida egin eta sekretua guretzat gordetzea erabaki genuen. Eta ogitarteko asko jan genituela zin dagizuet, nire gerribuelta testigu. Orduan irabazitako kiloak bota ezinik nabil oraindik.

Eta horrela, jan edanez, festa zoragarrien berri izan genuen. Mutrikuko mada-lenak, Oiartzungo sanestebanak, Azpeitiko *saninaxiyuak*... eta herri gehienetan San Miguel.

Baina, festa politik Debako sanrokeak! Eguraldi ederra egin zigun, eta trena hartuta han ginen goiz-goizetik. Herriko kale nagusia itxia zuten, eta haurrentzat entzierroa egin behar zutela esan ziguten DYako furgoneta baten alboan zeuden sorosleek. Bazterrak pixka bat ikusi, kafea hartu, indarra ematen zigun peto horia jantzi, eta bakoitza kale izkina banatan jarri ginen.

Hantxe ari ginela gure produktua eskaintzen, senar emazte bikotea gerturatu, eta gizonak boletoak etxean jasotzen zituela komentatu zigun, harpideduna zelako. Gu, barrutik barrez, eta kanpotik serio. Baina segituan emaztea sartu zen elkarriketan eta senarra zuzendu zuen. Ez... zuk etxean jasotzen dituzunak Gurutze Gorriko boletoak dira eta hauek...DYAkoak dira. Azkenen, serio egonagatik, irribarre batez agurtu genuen bikotea, eta aurrera.

Arrasaten ere gauza xelebrea gertatu zitzaigun. 2014ko urte hartan, Gure Esku Dago taldeak Iruñea eta Durango lotuko zuen giza katea antolatu zuen ekainerako. Ekimen hori ezagutarazteko, udaberriko festa eta azoketan, postua montatzen zuten, eta ibilbideko kilometro bat saltzen zuten, eta kamiseta urdina oparitu. Gure Esku Dagokoak urdinez jantzita kilometroak saltzen bost eurotan, eta gu inguruan Kilometrotakoak Gure Zozketako boleto urdinak bost eurotan saltzen... ba azkenean espero duzuen! Arrasateko parte zaharrean bikote gazte batek boleto bana erosi zigun eta bata besteari: *gogoan niran kilometro bat erosteko*.



Eli Manterola

Pare-pareko

Hantokian ekimen pilotu bat jarri dute martxan. Helburua, hitz potoloekin labur esanda: emakumeen lidergo ahalmena eta autolidergorako trebetasunak gartztea. Izan ere, erantzukizun postuetan gizon askoz gehiago omen dago gurean emakumeak baino. Programan izena eman edo ez pentsatzen aritu nintzen. Hasiera batean, ez dirudi aukera txarra, profesionalki garatzen lagunduko dit eta. Bestetik, baina, ez zait justua iruditzen nire adin bereko eta antzeko profil profesionala duen lankide batek, mutila izanagatik, lidergoari buruzko formakuntza jasotzeko eskubiderik ez izatea. Berdintasun eta parekidetasun eztabaidetan, planteamendu sinplista samarrak erabiltzen direla iruditzen zait sarritan, femenino eta maskulino dikotomia betikotzen dela, horri aurre egin ordez. Feminista usteko zenbait diskurtso matxismoaren ordain eme bihurtzen dela.

Ekimenari buruzko nire zalantzak azaldu nizkion lankide bati. Hezkuntza mistoa izanda ere halako ikastaroak antolatu behar izatea ez dudala guttiz zilegi ikusten esan nion, eta hark *izango ez da bada, beharrezko! Emakumeok beste modu batera egiten dugu lan* eta halakoak esanez hasi zitzaidan. Diskurtso sinplista samarrari tiraka, alegia. Beste bi lankideri ekimenaren berri eman orduko *ni ez naiz feminista* erantzun zidaten. Uf! Izango ez dugu bada zer hobeturik! Hasteko eta behin, bada garaia terminologia egokitu, feminismoaz baino parekidetasunaz hitz egiten hasi, eta ahalik eta aldeko jende gehien biltzeko!



Orioko azken ontziola, orain 60 bat urte.



Hondarribiko Madre Guadalupe eta Orioko Reina Maria.

Mutiozabal ontziola biziberritzen

Orioko Udalak hitzarmena sinatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin urtarilaren 26an. Diputazioak **47.981€ko diru-laguntza emango dio udalari**, Mutiozabal ontziola eskuratzeko Orioko herriarentzat.

TESTUA: IÑAKI ITURAIN

ARGAZKIAK: IÑAKI ITURAINEN ARTXIBOA

Ontziola Orioko plazaren aurrez aurre dago, errioaren beste aldean. Dirudienez, ontziolaz jabetzearen helburua da han aurrerantzean itsasoko ontzigintzari lotutako jarduerak antolatzea: ontziak konpondu, erakusketak, ikastaroak... Alkateak esan zuenez, lehenengo, eraikina eraberritu eta sendotu egingo dute, ondoren ontziolari bizi berria emateko.

Denis Itxaso kultur diputatuak, hitzarmena sinatzeko ekitaldian, adierazi zuen Gipuzkoak harreman estu-estua izan duela beti itsasoarekin, Gipuzkoan ondare kultural eta historiko handia dugula, gure izaera eta nortasuna itsasoari lotua dagoela eta horri eutsi egin behar zaiola, bizirik dagoena eguneratuz; eta horregatik lagundu nahi dutela Mutiozabal biziberritzen. Erantsi zuen horrek bide batez balioko duela Orioko herriari kultura eta turismo alorreko baliabide eder bat emateko, eta kanpoko jendea erakartzeko.

Itsasoari lotutako jarduerak

Azken urteotan, Gipuzkoan nabarmen zabaldu dira itsasoari begirako ekimenak. Itsasoaren berpizkunde horretan eragin nabarmena izan dute Donostiako kaian dagoen Untzi Museoak eta bertako zuzendari Jose Maria Unsain oriotarrak, eta Aquariumeko Ozeanografia Fundazioak.

Pasai San Pedron Albaola ontziola zabaldu dute. Han, itsas ondarea berreskuratu nahi dute eta jende aurrean jarri. Besteak beste, XVI. mendeko San Juan ontziaren erreproduzioa ari dira egiten, garai hartako teknikak eta lanabesak erabiliz. Ontzia Pasaian uretaratu zen 1563an eta Kanadako kostaldean hondoratuta dago. Bertan dihardu lanean Esteban Gozategi 'Karraballo' oriotarrak.

XVI. eta XVII. mendeetan euskal arrantzaleek balearen atzetik joanda Kanadako kostaldean osatutako epopeiaren berri jakiteko, funtsezkoa izan da Selma Huxley ikerlari kanadarrak egindako lana. Selma Oñatiko artxibategiko doku-



Francisco Karrera *Txanka*, bapore baten lanean.



Agustin Gozategi aita, Esteban eta Jose Manuel semeak.

“Euskal Herriko ontziolen historian, Aginaga eta Oriokoak garrantzi handikoak dira”

mentuak aztertzen aritu zen urte askoan, 1970 eta 80ko hamarkadetan. Garai hartan Orioko herrian ere sarritan izan zen Huxley andrea, balearen arrantzaren historiaren arras-toan. Azken urteotan hainbat omenaldi egin zaizkio emakumeari: Eusko Jaurlaritzak, Donostiako Aquariumak...

2014an, Lourdes Odriozolak idatzitako ‘Mutiozabal, constructores navales del Oria (1775-1931)’ liburua argitaratu zuen Ozeanografia Fundazioak. Liburua plazaratzeko laguntza handia eman zuen Fundazioko presidente Vicente Zarageta zenak, ideia berri izan zuenetik. Liburua idazteko bidean, Jesus Mari Perona eta Jose Luis Arin oriotarrak laguntzaile izan zituen Odriozolak, baita Zarautzen bizi diren mutiozabaldarrak ere. Liburuan agertzen diren barkuen planoak Peronak topatu zituen Orioko Mutiozabal etxean. Planoak izan ziren gerora liburu bihurtuko zenaren abiapuntu. Handik abiatuta, idatzi zuen Odriozolak Oriako ontziolen historia jasotzen duen liburua. Planoak orain Ozeanografia

Fundazioan daude jasota.

Perona itsasontzi zale amorratua da eta urteak daramatza ontzien maketak egiten eta Orian egindako ontzien historia aztertzen. Orain prest dauka liburu bat argitaratzeko: ‘Mirada a las Naos vascas del siglo XVI’. Liburuan ageri diren ontzi haietako asko Oria erriko ontzioletan eraiki ziren.

Orioko ontziolen historia

Euskal Herriko ontziolen historian, Oria ibaiko ontziolek leku garrantzitsua daukate. Haietako asko Orion bertan egon ziren, XVI. mendetik XX. erabitaratean, Oriaren biertzetan, Aginaga eta itsasoa bitartean.

Orion, erriorearen eskuin aldean, bat Elizarena zen: Orioko Erriberakoa (XVII.-XVIII. mendeetan, Arostegi tailerraren parean); beste bat, Udalarena (XVI.-XIX., moilan, gaurko Aterpe tabernaren aurrean); Dike (1785-1923); Ortzaika (XX.); Zalmaizti (XIX.); eta Saikola (XVII.-XIX.).

Ezkerraldean, Altzerri edo Zudugaraiakoa (XVII.); Arratola edo Mutiozabal (XVIII.-XX.); Arin y Enbil (XX.); eta Oria (XVIII.) edo Portu-Ondo (XIX., 1918tik aurrera Astilleros del Oria, zubiaren goiko partean).

Eta hiru, Aginagan: Uriberri-Mapil (XVI.-XX., bertan egin zuten San Jose galeoia, Kolonbiako kostaldean hondoratutakoa, eta berriki aurkitu dutena), Zakoeta (XVI.-XIX.), eta Urdaiagako San Esteban (XVI.-XVII.).

Egindako ontzientzat behar ziren burdinazko piezak burdinoletan egiten ziren. Burdinola asko egon zen Aia aldean, Santiyo eta Altzerri erreken inguruan, Oriatik gertu. Ezagunenak hauek: Agorregi, Arrazubia, Segurola eta Errekondo.

Mutiozabal ontziola bakarrik geratzen da zutik Gipuzkoan. Beraz, balio historiko handia du. Ontziolak historia luzea du, XVIII. mendean eraikia da, orduan zegoen lokaztiaren gainean. Arratola izena zuen. XIX. ean Mutiozabal familiak eskuratu zuen; 1936ko gerraz geroztik, Jose Manuel Ostolazak, Mutiozabali errentan hartuta.



1954an *Hermanos Manterola* baporea eraiki zuten langileak, uretarakoan pozik.

Mutiozabaldarren historia

Mutiozabaldarrek 131 urte egin zituzten ontzigintzan lanean Oriaren ertzean, 1798tik 1929ra bitartean. Aurrena, Aginagako ontzioletan; 1887tik aurrera, berriz, Orioko Arratolako ontzian. 217 itsasontzi egin zituzten denbora horretan. Mutiozabalen ontziolara iritsitako barku-eskaera gehienak Gaztelako erregeenak izan ziren, Ameriketako abenturarako.

Mutiozabal familiak Aginagan errio ertzean dagoen Lastola baserrian du jatorria. Handik sortutako hiru belaunalditako mutiozabaldarrek osatu zuten 131 urteko historia: Jose Matias eta Migel Ignacio Mutiozabal Aldako anaiek; horren seme Jose Manuel Mutiozabal Atxegak; eta horren seme Migel Antonio Mutiozabal Arrillagak. Odriozolaren liburuan agertzen denez, ekimen handiko jendea izan zen eta gaitasun tekniko izugarria erakutsi zuten. Kalitate handiko lanak egin zituzten, jakin zuten merkatuaren egoera berrietara egokitzen eta aitzindari izan ziren barku-tipologia berri askotan.

Jose Manuel Mutiozabal Atxega XIX. mendeko Gipuzkoako ontzigile garrantzizkoena izan zen. Haren seme Migel Antoniok, berriz, euskal ontziola batetik sortutako lehenengo baporea egin zuen 1877an, bela eta haizearen ordezturrunaren bidez mugituko zen Gipuzkoako lehen itsasontzia, *Ugarte 2*. Gizon honek, itsasontziak egiteari utzita, altzari-fabrika zabaldu zuen

Orion, Arin eta Enbilekin batera, oraingo *Arin y Embil*; Irisasi mendia ustiatzeko plana idatzi zuen; goi mailako ebanisteria zabaldu zuen Zarautzen; eta, azkenik, Orioko ontziola eraiki zuen, orain Oriok eskuratuko duena. 1912tik 1915era herriko alkatea izan zen.

Ostolaza, Txanka eta Karraballo

Francisco Karrera *Txankak* Jesus Mari Peronari azaldu zion tentatuta egon zela Dikeko zingiran edo zuloan ontziola bat eraikitzeko, 1785 inguruan Vizente Joshep Segurak eraikitako *Diquemare* alaren aldean; baina han egingo zituen ontziak derrigor zubipetik pasatu beharrak aldarazi egin zion plana eta, orduan, Jose Manuel Ostolaza eta Agustin Gozategi *Karraballo* erekin bat egin eta hiruren artean hartu zuten errentan Mutiozabal familiaren ontziola zaharra. Txankak Ortzai-

kako ontzian ikasi zuen errioko arotz lanbidea, Manuel Elizondo *Ortzaika Handi* arekin.

Mutiozabal ontziolako azken garaiko baporeak

Peronak zerrenda bat pasatu digu, Ostolaza, Txanka eta Gozategiren garaian ontzian egingako itsasontziena. Txankak gogoan zituenekin osatua da zerrenda –izen batzuk falta omen dira–. Hasierako urteetan, Alberto Illarramendi Altxolak egingako diseinuak erabili zituzten ontziak egiteko.

1954koa da lehenengoa, Hermanos Manterola; azkena, 1974koa, Donostiarako egingako Luzaro. Denera, 33 baporedaude. 16 Oriorako eginak: Hermanos Manterola –Isidro Manterola, 1954–, San Jose –Eulogio Murgiondo, 55–, Corazon Santo –Rufino G. Txabarri, 56–, San Gabriel –Anbrosio Uranga, 57–, Torrontegi –Clemente Ibargoinen eta Garate sendia, 57–, Glorioso San Luis –Manuel Etxeberria, 58–, Glorioso San Nicolas –Ramon Solaberrieta, Erramon Lino, 58–, Nuevo Reina de los Angeles –Ramon Solaberrieta, Lino, 62–, Nuevo San Antonio de Padua –Vittor Dorronsoro eta Jose Manuel Sarasua, 62–, Beti San Fermin –Jose Manuel Peña, 63–, Villa San Nicolas –Jose Uranga, 63–, Beti San Juan –Julian Manterola eta anaiak, Txaganekoak, 64–, Tubal Berria –Clemente Ibargoinen eta Garate sendia, 65–, Reina Maria –Eugenio Azkue, 66–, Beti San Jose –Martin Murgiondo, 66–, Beti San Nicolas –Jose Garate eta Ramon Solaberrieta Lino, 67–, Txinparta –Josu Azkarate, 1971–.

Gainerako baporeak Oriotik kanpora joan ziren: Frantzia, Hondarribia, Ondarroa, Donostia eta Pasaia. Eta hara, bat Candaserako egin zen: Nuevo Pepin –1962–.

1966an eraikitako *Beti San Jose* baporearen aurrekontuan hainbat datu esanguratsu agertzen dira. Kontratua 1966-12-10ean sinatua da, Ostolazaren alargunak eta Martin Murgiondo armadoreak. Baporea sei hilabete egingo zuten, egurrez, 4.800.000 pezetatan –oraingo 28.800€–, eta 24,20 metroko eslora izango zuten.

Donostiako Untzi Museoak, 1990ean, Erdi Aroko balea-ontzi bat eraikitzeko eskatu zion Txankari. Ontzia Untzi Museoan egon zen ikusgai 1991tik 2007ra bitartean. Gaur egun Diputazioaren gordailu batean dago. Karraballotarrek ere ontzi bat egin zuten UMrentzat, txibietarako batela. Horiek izango dira Mutiozabalen egingako azken ontziak.



Ramon Carrera Txanka

Aitagatik duzu gertuko Mutiozabal.

Aita 25 urterekin hasi zen hemen. Lehenago Ortzaikan egiten zuen lan, baina hemen ontzi handiak egiten hasi zirenean han fundamentua gutxitu zen. Mutiozabal, orduan, Ostolazaren Astilleroa zen eta aita orduan etorri zen. 25 urterekin egin zuen aitak lehendabizikoz itsasontzi bat. Aitagatik jaso ditut Mutiozabalen egin ziren itsasontzien planoak.

Etazuk?

Guk ez dugu hori ezagutu. Galizian ibili ginen, han egin bai-

Jesus Mari Perona

Zein harreman duzu Mutiozabal ontziolarekin?

Nik Ostolaza izenarekin ezagutu nuen Mutiozabal izandako ontziola. Txanka eta Karraballo aritzen ziren han lanean. Gaztetxoan nintzela saltseatzera joaten nintzen, beti liluratu izan bainaute ontziek. Gerora, Arin & Enbilen hasi nintzen lanean eta, hortik, harremana estutzen joan zen.

Ontzien maketak egiten dituen talde batean nago Donostian, Gipuzkoako Ozeanografia Elkartean, eta hango proiektu baten harira elkarrizketa egin nion Txankari. Informazio asko jaso nuen handik.

Elkarlanean ere aritu zineten

Alberto Illarramendi Altxola Mutiozabaleneko etxean bizi zen, eta berak diseinatutako ontziak egin izan zituzten ontzian. 1970ean Altxola izeneko trainerua egin zuen eta Arin & Enbileko nagusiek liberatu egin ninduten Illarramendiri laguntzeko. Berekin lanean egon nintzen traineru hasi zuenetik bukaerara arte. Ikasketa handia izan zen hura niretzako.

Orain ia erorian ikusteak zer eragiten dizu?

Pena handia ematen dit horrela ikusteak, Orioko historiaren parte den eraikin bat erdi erorian egotea triste da. Horregatik, Udalak erosi egingo zuela jakin nuenean poz handia hartu nuen.

Zer iruditzen zaizu proiektua?

Primeran iruditzen zait ontziola berreskuratzea, lehengo

tzuten Gure Nahia. Donostiarako, baina txikia. Aitak plantillak egin zituen, eta hortik abiatu ginen, baina bera hil eta urte betera bukatu genuen.

Ontzigintza asko aldatu da, ezta?

Nik ikusten nuen hortik ezin zela bizi. Umerik ez baduzu, agian; baina familia baduzu, ez. Azken ontzia nik zazpi urte nituela egin zuten. Sei-zazpi langile finko inguru zeudela esaten dute, eta, gero, neguan, laguntzera arrantzele gehiago joaten zirela.

Orain begira, ia erortzeaz dago Mutiozabal.

Etsituta negoen. Saiatu ginen hori berreskuratzen, baina ez zela hala izango uste nuen. Pena ematen zidan horrela egotea.

Bideragarritasuna ikusten diozu? Zein erabilera izango duela uste duzu?

Museo bizia izateko asmoa dutela esan ziguten. Eraikina txukun jarrita, txarrena da egurrak ontzigintzan ez duela etorkizunik. Gaur egun jendeak ez du egurrezko ontzirik nahi, *kapritxoagatik* ez bada. Egurrezko gehienek ere plastikoa daukate emanda.

Hurrengo pausoek kezkatu egiten naute. Entzun ditut kontuak, baina ez dakit. Ez dakit zer erabilpen emango zaien. Munduan eskola bakarra dago, Quebecen. Etorkizuna izango balu toki gehiagotan egongo litzake. Ez dakit.

Baina berreskuratzeak ilusioa egingo zizun, ezta?

Bai, azkenengoa delako, eta gure herriaren historiaren parte delako.



aktibitatea berreskuratu eta berriz martxan jartzea. Ahazturan dagoen ofizioa da ontzigintza tradizionalarena eta aberasgarria da hori berreskuratzea. Horregatik, gaia bide horretara eraman duten pertsonak txalotu nahi ditut. Baina, nahi nuke, hori abiapuntua besterik ez izatea.

Esfortzu pixkat gehiago eginda, Mutiozabaldarren etxea erosi eta ontzigintza, arrantza, arrauna eta Oria ibairekin loturiko zentroa egitea interesgarria litzake. Izan ere, zer izango zen Orio Oria ibairik gabe? Memoria historiko hori berreskuratu behar dela uste dut.



LOURDES SALSAMENDI: “POLITIKARIEN MENPE EZ EGOTEA GUSTATUKO LITZAIDAKE”

Zergatik berreskuratu nahi izan duzue Mutiozabal ontziola?

Kantauri isurialdean zutik gelditzen zen ontzioletatik martxan egon zen azkenengoa da. Errekuperatzeko esfortzua egitea, beraz, oso garrantzitsua iruditzen zitzaigun. Gainera, duen kokapenagatik -turismoa kontuan hartuta- erreferentzia- la da oso; eta, bereziki, herriaren historiarekin duen lotura estuagatik.

Adostasunez erabaki duzue berreskuratzea, gainera.

Aurreko legealdian hasi zen berreskuratzen prozesua, alderdi guztien artean. Momentu batean, gelditu egin zen. 60.000 eu- rotara irits zitekeen diru laguntza galtzeko arriskua zegoen. 2015 abenduan amaitzen zen erosteko epea eta laguntza eros- ketarako zen. Pittin bat gutxiago kostatu da, 47.981 euro eta hori ordaindu dute.

Orainek iritzia eman du, esanez pozik dagoela baina ez direla informatuta egon. Kontua da, batzuetan, gauzak etorri ahala egin behar direla, azkar. Gainera, Mutiozabalgo iloba guztiekin ados jarri behar izan dugu. Nahiz eta guztiek borondatea izan lehen momentutik, adostasunera iristeko elkarrizketa dezente egin behar izan ditugu eta ez genuen apenas denborarik ho- rretarako, gaiari berriz irailean heldu baikenion. Horregatik izan da minutuz minutu ez informatzearena.

Eta behin erosit, berreraikuntza nola finantzatuko duzue?

Jaurlaritzatik bideratzen saiatuko gara. Berreskuratze laguntzak daudenez, bide horri helduko diogu. Hori eraikuntzari dagokionez. Bestalde, proiektua bideratzea, zer erabilpen eta kudeaketa izango duen zehaztea ere garrantzitsua da diru laguntzak lortzeko. Hezkuntza sartu nahi dugu proiektuan, formazioa, eta hortik ere finantziazioa lor dezakegu.

Hezkuntza diozu. Gazteentzat formazioa?

Kasualitatez, datorren astean, Albalakoekin elkartuko naiz. Egurrezko ontzigintza eskolak ematen hasiko dira. Aukera handiak daude eta guk ziur daukaguna da elkarlana ezinbestekoa dela, ontziolen arteko saretzea. Lotura izan nahi dugu, besteak beste, Albalarekin. Elkar elikatzea da egokiena.

Baina oraindik ez daukazue zehaztuta proiekturik, ezta?

Zehazteko adituekin egon behar dugu. Adituekin hitzaldi bat antolatuko dugu herritar guztientzat, eta beraiek emango dizkigute ideiak ontziola era onenean bideratzeko. Herritarrek parte hartzea espero dugu, proiektua osatu ahal izateko.

Emango zaion erabileraren arabera izango da eraikidaren itxura?

Proiektua egin gabe dago, baina, dakidanez, ontziola lehen zen moduan errekerperatuko da. Lehengo berdina izango da, hau da, erreplika gaurkotu bat egingo da.

Eta horretarako guztirako zenbat diru behar duzue?

Zifra batzuk aipatzen dira, baina ez da zehatza. Aurrerago jakingo dugu, hemendik gutxira. Udararako proiektua aurkeztu behar dugu eta ordurako jakin beharko dugu.

Hezkuntzan tokia izatea nahi duzue, baina hori ere definitzeke dago, ezta?

Ez dakit zer erabilpen izango duen, baina niri gustatuko litzaidake zerbait konkretua izatea eta ez politikoa. Herritik eta herriarentzat egindako zerbait da. Hortaz, nahiz eta hemendik lau urtera beste alderdi bat egon indarrean, hori politikarien menpe ez egotea gustatuko litzaidake. Autonomia propioa izatea. Ahalik eta modu onenean bideratzea, hori argi izatea eta ildo horretatik bideratzea, boterean dagoena egonda.



Hondartza, garai batekoa bezala

Itsasora begira, horrelaxe egon zen kostalde osoa pasa den otsailaren zortzian. Itsasaldi zakarra zetorren, alerta gorrian izan ginen. Sei metroko olatuak izan ziren gau horretan, goizeko bostak aldera, itsasgorarekin. Arratsaldean ere, ikustekoak zen itsasoaren haserrea.

Hainbat kalte eragin zituen Urola Kostan; Zumaian, Zarautzen eta Getarian. Orion ez zen kalte handirik izan, tokiz mugitutako harriak, enborrak eta hondar ugari besterik ez. Malekoian ia ez zen lurra ikusten eta, estampa ikusita, garai bateko hondartza etorri zitzaion bati baino gehiagori burura. Ibaiaren aldean barrualdera luzatzen zen hondartza hura.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk eka-rritakoa dela jarrita.

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 :: ORIO
[sarrera Arrantzale kaletik]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com

LEUNDA OKINGEDIA

ORDUTEGIA

XSTELEHENETIK :: LARUNBATERA IGANDE ETA JAIEGUNETAN

7:00 - 20:30 **7:00 - 13:30**

TEL: 943-89.00.67

arkaitz taberna

- Ogitaratekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin
Giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657



IGLESIAS
SARRAILAGILEAK

24 ORDOKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiassarrailagos@yahoo.es
20810 ORIO

- ATEAK IREKITZEN DITUGU
- SARRAILA - ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALGUKIEN ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA



PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TELF - 943.572083
FAX - 943.571190
iasenjo@hotmail.es

INES ASENJO
IBAI ONDÓ 13
20810 ORIO

azkue

karrozeria



Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com



Maider Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA


Carmen eta Txomin

ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

PERTSIANAK



Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27



Santio Erreka Auzoa, 2/g
943 89 44 34
20809 AIA-ORIO

kazalirik laseriko alaskan
funtzio erretiki egiteko marea

EGIGUREN

Argazki Estudioa - Foto Estudio

EGIGUREN ARGAZKI ESTUDIOA

LEHENENGO JAUNARTZEA

Eskatu informazioa
eta
Aurrekontua
Inongo konpromesurik gabe

Egin erreserba berandu baino lehen

EUSKO GUDARIEN KALEA 5 - BEHEA
943. 83.04.25 - 607.54.27.63





Antonio Campos

Ilusioa zahartzaroan, bizitza

Gizarte hobeago bat izateko ere, beharrezkoak gara hainbat alorretan, gure delako esperientzia, gurea memoria historikoa

Katedralak, altzariak, pinturak eta liburu zaharrak maite ditugu, baina askotan erabat ahaztu egiten gara ikaragarritzko balore moralak eta espirituala duten edadetuez. Guk, edadetuak izanik, ezin eskertu gabe utzi egunero-egunero urteak betetzea. Izan ere, zahartzaroan, urteak dira bizirik egotearen prezioa.

Goethek *Fausto* 82 urterekin amaitu zuen idazten. Tizianok pintura ikusgarriak egin zituen 98 urterekin. Toscaninik 87 urteekin orkestrak zuzendu zituen. Edisonen 83 urterekin bere laborategian jarduten zuen. Benjamin Franklinen AEBko Konstituzioa burutzen lagundu zuen 81 urterekin. Jacinto Concit, Venezuelan, minbiziaren aurkako txerto bereziren bat atera bidean dabil 96 urterekin.

Urte horiek guztiak gurekin daramatzagu edo ate-joka dauzkagu, eta adierazitako pertsona horiek kapaz izan badi-ra zerbait positiboa egiteko, gu zergatik ez?

Nolabaiteko ilusioak ekarri bagaitu honaino, jarrai dezagun ilusioari eusten. Garrantzitsuak gara, ez gara zokoratze-koak, baztertzeko material bat. Gehienak sasoikoak gara, fisikoki eta mentalki, eta gizarteak badu gure beharra. Pare bat ideia ilusioa bizirik mantentzeko.

Gizartearen historian, garai guztietan, era batera edo bestera, familia euskarri sendoa izan da. Gure Euskal Herri mai-tea ere, izan duen familia eredu indartsurik gabe, ez zen izango gaur den Euskal Herria. Eta gu, zaharrok, desagertze-ko bidean egongo ginateke, aitona-amonak ez balira egongo ezagutu dugun familia ereduaren. Beharrezkoak beraz.

Gizarte hobeago bat izateko ere, beharrezkoak gara hainbat alorretan, gurea delako esperientzia, gurea memoria historikoa.

Instituzioak, Gobernua, Diputazioa, Udala... gero eta gehiago ari dira saiatzen, errentagarriagoa izate aldera, helduen partaidetza sustatzen. Demokrazia parte-hartzaile bat daukagu, bi zutabe nagusietan –elkarriketean eta gardentasunean–, oinarritzen dena.

Elkarriketa, ez bakarrik arazoak aztertzeko, baita gizarte gisa ditugun erronkak entzuteko eta konponbide partekatuak eraikitze ere. Gardentasuna, herritarrek une oro zera publikoaz informaturik egon daitezen. Adierazle moduan esan, Gobernuak bidali berri duela Eusko Legebiltzarrerara *Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren parte hartzearen eta Gobernu Onaren lege aurreproiektua* eta hor dago *Euskadiko Demokrasiari eta Herritarren parte hartzeari buruzko Liburu Zuria*.

Azken batean, Gobernuaren jarduna herritarren beharrek lotzeko tresnak dira guztiak eta gu partaide garrantzitsuak izan gaitezke. Izan ere, ez gara hain zaharrek, gertatzen da gaztetasun asko ditugula batuta eta orain bizi duguna, behar bada gure azkeneko gaztetasuna izan daitekeela. Aprobetxatu dezagun.



Inauteri jendetsu, koloretzu eta eguzkitsuak

Otsailak 5, ostirala. Herriko eskolatakoek inauteriak ospatzeko aukeratu duten eguna. Goizean, Zaraguetakoek; arratsaldean, Ikastolakoek. Euskal inauteriez lehenak, lotiz eta kaldereroz bigarrenak. Kalejira, dantzak, pregoia, txokolatea... ez da ezer falta ez festa batean, ezta bestean.

Otsailak 6, larunbata. Arratsaldeko bostak, Bikamiotan. Talai Mendi txaranga zain eta gero eta jende gehiago bilduta. Hasi dira tronpetak, bonboak eta txindatak jotzen, eta desfilea plazarantz abiatu da. Buzoak, animaliak, ka-lefitzaleak, animatzailleak, mimoak eta banpiroak ugari, baina, aurtengoan, super heroiak dira nagusi.





Bailara eraikiz

Urola Kostako Udal Elkarte

Urdaneta bidea 6, Zarautz



Urola Kostako Udal Elkarte erakunde publikoa da, Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia udalek 1991n eratutako mankomunitatea. Bere egitekoa da eskualdearen garapen sozioekonomikoa sustatzea eta, horretarako, udal eskumeneko zerbitzu eta programak elkarrekin bideratzen dituzte. Hori guztia herritarren ongizatea handitzeko helburuarekin.

Udal Elkarteak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, lau atal hauetan banatuta: Enpresak eta Enplegua, Ingurumen Zerbitzua, Euskara Zerbitzua eta Turismoa. Gainera, askotariko jendearentzat zuzentzen dituzte zerbitzuak: langabe eta langileentzat, enpresa txiki, ertain eta handientzat, ikastetxeentzat, merkatari-entzat, ostalarientzat, euskaldun bidelari eta bidelagunentzat, bisitari-entzat... Oro har, herritar guztientzat.

Guztia ahalbidetzeko hainbat erakunderekin aritzen dira elkarlanean: besteak beste, Garapen Agentzien Euskal Elkarte, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, INEM, Europako Gizarte Fondoa, eskualdeko ikastetxeekin eta enpresekin. Azken finean, bailara garatzea delako Udal Elkartearen lehentasun eta xede nagusia. Eta diseinu grafikoaren alorrean, zer egin daiteke?

EGOITZA NAGUSIA

Urola Kostako Udal Elkarte
Urdaneta bidea 6, Zarautz
943 89 08 08

harrera@urolakosta.eus
www.urolakosta.eus

GARBIGUNEAK

Zarautz: Abendaño industrialdea, Zubiaurre berri z/g, 943 13 50 97

Zumaia: Joxe Mari Korta industrialdea, 943 86 04 41

Aia: Ubegun industrialdea, 943 13 41 39

ZUMAIKOA SOLDADURA ZENTROA

Estazioko industrialdea,
Urola plaza 10, Zumaia
943 86 25 76

ZERBITZUAK

1. ENPLEGUA ETA ENPRESAK

- 1.1. Prestakuntza: soldadura eta galda-
ragintza, zeharkako konpetentziak,
enpresa kudeatzeko ikastaroak...
- 1.2. Laneratzen laguntzeko zerbitzuak,
pertsona langabeentzat: orientazioa,
lan-poltsa, ikastaroak.
- 1.3. Enpresa sortzen laguntzeko zerbi-
tzua, enpresa sortu berriei laguntza.
- 1.4. Enpresentzako zerbitzuak, lehia-
kortasuna handitzeko.

2. INGURUMEN ZERBITZUA

- 2.1. Hondakinak gaika jasotzeko zerbi-
tzua, kaleko edukiontziak: papera,
beira, ontzi arinak, hondakin organi-
koak, arropa, olioak, pilak...
- 2.2. Hondakinak gaika jasotzeko zerbi-
tzua: garbiguneak.
- 2.3. Konpostaren plana: konposta
etxean, auzoan eta komunitatean.
- 2.4. Sentsibilizazio kanpainak: Eskola-
ko Agenda 21, ikastetxeak, herrita-
rrak...

3. EUSKARA ZERBITZUA

- 3.1. Eskualdean euskara sustatzeko
ekimenak, udalekin elkarlanean.
- 3.2. Euskara lan munduan sustatzeko
ekimenak.
- 3.3. Mintzalagun programa.

4. TURISMOA

- 4.1. Eskualdean turismoa sustatzeko
ekimenak, udalekin elkarlanean.
- 4.2. Sustapen kanpaina eta ekimenak
- 4.3. Eskualdeko ibilbideak.

11. NORENTZAT?

- 1.1. Langabe eta langileentzat.
- 1.2. Lan bila dabiltzanentzat.
- 1.3. Enpresa sortu nahi duenarentzat.
- 1.4. Enpresa txiki, ertain eta handien-
tzat.

2. NORENTZAT?

- 2.1. Herritar guztientzat.
- 2.2. Herritarrentzat eta gremio txi-
kientzat.
- 2.3. Herritar guztientzat.
- 2.4. Eskualdeko ikastetxeentzat, herri-
tarrentzat.

3. NORENTZAT?

- 3.1. Herritar guztientzat.
- 3.2. Merkatar, ostalari eta enpresa txi-
ki eta ertainentzat.
- 3.3. Euskaldun bidelari eta bidelagu-
nentzat.

4. NORENTZAT?

- 4.1. Bisitari, herritar eta sektoreko en-
presentzat.
- 4.2. Bisitariarentzat.
- 4.3. Bisitari eta herritarrentzat.



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA



Izarra Elektrogailuak

PREZIOAK **KALITATEA**

↓ ↓ ↑ ↑

edesa **beko** **balay** **acer**
CORE I3

19€ **28€** **23€** **36€**

HILEAN **HILEAN** **HILEAN** **HILEAN**

TIEN 21 Eusko gudari, 44 • 943 833 881 **TIEN 21**

Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel. 943 13 00 77 - Fax. 943 53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Arrantzale kalea, 65
20810 ORIO (Gipuzkoa)

AIRIDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

BODEGAS Gailur

01307 BANCOS de EBBRO
Tel/Fax 945 60 91 58
www.bodegasgailur.com
Arabar Enrioka

ZUDUGARAI

Galeriako Txakolina

Tel. 943 83 03 86
Fax 943 83 59 52
txakolizudugarai@euskalnet.net
www.txakolizudugarai.com

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

MARTXOko lehen
astebukaerarako **irekiko**
ditugu gure
ateak!

Galerna
JATETXEA

943 89 04 10

Lizaso
dekorazioa

Tf:
943 83 07 84

Faxa:
943 24 87 15

Eusko Gudari, 48

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu. ☒

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe ☒

Lan txukuna eta merkea ☒

Tfnoa: 943 83 59 00

Nahikari

HAUR DENDA

Arrantzale Kalea, 35
28100 - Orio
Telf. 943 83 36 30
www.nahikari.es



610697668
943831048

www.fotoramiro.com

Denboraren besarkadez gozatzen



Iñigo Gaiton

**Denbora alua. Azken aldian jarraika dut, txakur txikia bailitzan. Ordu asko ditut libre, baina beti justu edo beran-
duxeago iristen naiz zita guztietara.**

A itortuko dizuet, aurreko artikuluetan ez bezala, oraingo honekin ez naizela ari gehiegi gozatzen. Momentuan ez dut tri-pak dantzan jartzen dizkidan ezer kontatzeko. Edo idazteko. Beno, baditut dezente kezkatzen nauten gauza txikiak buruan, baina ez daukat horiek paperera pasatzeko sufrikariotik gozamina bilatzen hasteko aldarterik. Edo denborarik.

Denbora alua. Azken aldian jarraika dut, txakur txikia bailitzan. Ordu asko ditut libre, bai, baina beti justu edo beran-
duxeago iristen naiz zita guztietara.

Lehengoz igandean koadrilakoa eta biok zerbeza banarekin hitz aspertua egiten ari ginela, hauxe zioen adiskideak denboraren joanaz: (...) *gertatzen dena zera duk, tabernetan dabiltzan herriko gazteek guk baino hamar urte gutxiago dituztela* (...).

Orain dela gutxi, beste lagun min batek honakoa idatzi zidan *whatsapp*era urtetako zorion mezuan: *Borroka denborari. Modu bakarra: unea bizi, une bakoitza. Oraina dastatu etengabe.* Beste batek, berriz, perla hau: *Laster 30, e? Hiri ere arroza ederki ari zaik pasatzen.* Pasa dadila, bada, lasai! Arroza irakiten eta oinak lurrean ditugun bitartean, ondo bidean

izango gara, ez?

Mesanotxeko orri zimurtuen itsaso nahasian topatu dut hurrengoa: *Olatu batetik besterako tartean / mundua erre daiteke, eta balore zaharrei hautsa astindu / galdu ditugunen ahotsari geurea gehitu / zahartzen dena soilik maita daitekeela ulertu.* Luis Garcia Monteroren olerki baten amaieratik abiatuta idatzi nituen lerroak, auskalo zertarako balio zezaketeela pentsatuz; ziurrenik, egunen batean munduko abesti ezagunena izango denaren estribilorako edo...

Eta, aizue, borradore horren funtzioa artikulua hau eta *Fotografías veladas por la lluvia* poemaren artean zubi lanak egitea bazen, zer? Tira, gaitzerdi! Honela amaitzen du olerkia poetak: (...) *Nos duele envejecer, pero resulta / más difícil aún / comprender que se ama solamente / aquello que envejece.*

Kaxoian honako esaldia ere bilatu dut, kolore gorriarekin eta letra larriz idatzita: *Heldutzea, noren antza izan nahi ez duzun ulertzen joatea da.* Baina beno, beste batean helduko diot honi; agian adiskidetu ere egingo naiz hori idaztera eramana ninduenarekin.

Segi fin lagunok. Eta saiatu, ahal duzuen neurrian, denboraren besarkadez gozatzen.



Martxoaren 8rako Feministorioa antolatu dute Xaltxerek. KARKARA

Xaltxerak, parekidetasunaren bila, taldean

Urte batzuetako geldialdiaren ondoren, berriz ere mar-txan jarri da **Xaltxerak taldea. Feministorioa antolatu dute**, martxoaren 8aren inguruan, emakumearen egoera-ren inguruan hausnartzeko eta kontzientzia pizteko.

TESTUA: M. GARCIA

ARGAZKIAK: KARKARA

Badira urte batzuk Orioko Xaltxerak taldea sortu zenetik. Emakumearen inguruko egun zehatzetan parekidetasunaren gaia ardatz hartuko zuten ekimenak antolatzeko hasi ziren eta 2008 inguruan taldea sortu zuten. Emakumeen zalkuntzaren inguruan hausnartu eta ahalduntze prozesuan urratsak egitea zen helburua.

Geldialdi baten ondoren, lehendik aritzen zirenak, eta beste hainbat emakumek lozorroan zegoen proiektua esnatu da berriz. 2015eko azaroan hasi ziren martxan, biltzen, hausnartzen. Eta egitarau oparoa dakarte emakumeen langileen nazioarteko egunerako.

Hainbat arrazoigatik ezin izan genion Xaltxerak taldeari jarraipena eman bere garaian –dio lehendik aritutako kide batek–, *baina orain indarberrituta eta gogotsu gatoz*. Hausnartu, aldaketa txiki-handiak planteatu edo, gutxienez, norberak bere egunerokoan betaurreko moreak jantzi eta injustiziak ikustea dute xede. Baita jarduerak planteatu eta herrian kontzientzia piztea ere.

Emakume talde bat Orion

Orio herri oso tradizionala dela diote, eta hori genero rolekin eta gizonezkoek dituzten pribilegioekin erabat lotua dagoela. *Matxismoa ez dira soilik tratatu txarrak eta eraiketak, guztioi eragiten digun zerbait da eta, horregatik, feminismoa oso beharrezkoa da jendarte justu, osasuntsu eta zoriontsuago bat sortzeko.*

Ez Orion bakarrik, herri guztietan egon behar luke talde feministaren batek, Xaltxeren ustetan. *Gizarte patriarkala da gurea, gizonezkoei berez aitortzen zaizkie pribilegioak, eta emakumezkoak beti gutxietsiak gara*. Lan handia dago egiteko oraindik, matxismo gutxiago dagoela dirudien arren, hor jarraitzen du, formaz aldatu besterik ez da egiten. Emakumeek egunero jasaten dituzten mikromatxismoak jartzen dituzte adibide. Krisia ere aipatzen dute, izan ere, emakumeak izan dira krisiak gehien kaltetu dituenak.

Feministorioa, emakumea erdigunean

Martxoaren 8a emakumeen nazioarteko eguna da, eta egun hori aukeratu dute Xaltxerek ibilbide berriko lehen ekitaldiak antolatzeko eta Feministorioa sortu dute.

Feminismo hitza sarri erradikaltasunarekin lotzen da, gizonezkoekiko gorrotoarekin, eta askori atzera botatzen dien hitza da. Horri buelta eman eta lerroburuan jarri nahi izan dute hitza Xaltxerek: *horregatik jarri diogu Feministorio izena, hitza bera ere aldarrikatu nahi dugulako.*

Astelehenetik ostiralera egongo dira martxan Xaltxerak aste horretan. Orioko saregileekin tertulia egingo dute, has-teko, martxoaren 7an. Kultur Etxean elkartuko dira eta lanbidez, itsasoarekin duten harremanaz, emakume izateaz... arituko dira. Oriorekin lortura zuzena zuen istorio bat egin nahi zuten, eta saregileak herriko emakumezko figura historikoak direla iritzi zuten. *Beren bizipenak, istorioak eta zail-*



Xaltxerak 2009an. KARKARA



Xaltxerak 2016an. KARKARA

“Orio herri oso tradizionala da, eta hori genero rolekin eta gizonezkoen pribilegioekin erabat lotua dago”

“Ez Orion bakarrik, herri guztietan egon behar luke talde feministaren batek”



Azaroaren 25ean kontzentrazioa egin zuten indarkeria matxistaren kontra. KARKARA



Saregileekin tertulia egingo dute martxoaren 7an. KARKARA



Angeles de hierro filma emango dute martxoaren 10ean. KARKARA

tasunak ezagutu nahi ditugu –diote–, itsasoarekin lotutako lanbideak berez gogorrek badira, are gehiago emakume izanda.

Martxoaren 8rako emakumeen afaria antolatu dute, Balea elkarteak. *Jatorri, adin eta pentsamolde desberdinetako emakumeak bildu eta elkarren konpainiaz goatzeko momentua izango da, gu bakarrik egoteko momentua.* Izen-ematea Kolon Txikin egin daiteke, martxoaren 4a baino lehen. *Afaria debalde izango da* –azpimarratu dute Xaltxerek–, *herriko emakumeak animatzea nahi dugu.* Afaria baino lehenago, 19:00etan, kontzentrazioa izango da plazan.

Martxoaren 10ean zine foruma egingo dute Kultur Etxeko areto nagusian. *Angeles de hierro* filma emango dute, Katja von Garnierrek 2004an zuzendutakoa. Estatu Batuetako emakume sufragisten borroka kontatzen du filmak.

Feministorioarekin bukatzeko, pintxo pote feminista egingo dute ostiralean, martxoaren 11n. Kolon Txikin elkartuko dira 19:00etan eta, handik, herrian zehar ibiliko dira bertsolari eta trikitilariekin.

Talde irekia

Parte hartu nahi duen edozein emakumeri dago irekia Xaltxerak taldea, guztiak ongietorriak izango direla azpimarratzen dute. Norbaitek berekin biltzen hasi nahi badu taldekiderekin batekin kontaktuan jarri edo antolatzen dituzten ekitaldietara joan besterik ez du.

FEMINISTORIA EGITARAUA

Martxoak 7, astelehena

19:00 Orioko saregileekin tertulia Kultur Etxean
Herriko saregileak beren lanbideari, egoerari eta istorioei buruz arituko dira berriketan.

Martxoak 8, asteartea. Emakumeen Nazioarteko Eguna

19:00 Kontzentrazioa plazan
20:00 Emakumeen afaria Balea Elkarteak
Izen-ematea Kolon Txikin martxoaren 4a baino lehen.
Afaria debalde.

Martxoak 10, osteguna

19:00 Zine foruma: *Angeles de Hierro*, Katja von Garnier -2004-.
1910eko Estatu Batuetako emakume sufragisten historia kontatzen du filmak.

Martxoak 11, ostirala

19:00 Pintxo-pote feminista
Kolon Txikitik abiatuta. Bertsolari eta trikitilariekin



1946an, guardia zibilak Mitxelena eta herritarrekin batera arrauneko garaipen bat ospatzen.

Guardia zibilen kuartela lurrean

Oroimenaren kutxa

2 016 urtearen hasieran bota egin dute Iraola Enea etxea, guardia zibilen kuartela zena. Aspaldi hutsik zegoen, erortzeko arriskuan. Orain lurrarekin berdindu dute. Francisco Iraolak eraiki zuen 1920an, Igeldotik etorritako *Praixku Igeldok*. Etxeak orduko 138.846,72 pezeta balio zuen –oraingo 833,11€–. Sotoa eta lau solairu zituen. Praixku Txaganeko Maria Manterolarekin ez-konduta zegoen. 1930ean, Txagaenea etxea eraiki eta hara joan ziren bizitzera, Dikeko etxea orduan urruti baitzegoen herritik. Iraola Enea hutsik geratu zen, eta 1940ko hamarkadan guardia zibilek hartu zuten bizitoki.

Gerra aurretik Orion mikeleteak zeuden, Gipuzkoako Diputazioaren polizia. Gerra hasi zenean, Orion hiru zeuden: Julian Arruabarrena kaboa, Martin Murua eta Felipe Aierbe; hirurak euskaldunak, hirurak Orion bizi zirenak. 1936an bertan, gerra hasi berritan, faxisten buruzagiek deuseztatu egin zuten mikeleteen erakundea. Felipe Aierbe hil egin zuten Bilbon.

Guardia zibilak 1936ko gerra bukatu eta urte gutxira sartu ziren Iraola Enean, eta bertan egon, Franco 1975ean hil baino urte gutxi lehenago handik atera eta udaletxera joan ziren arte. Udaletxeko goiko solairuan egin zien toki orduko udalak. Han urte batzuk pasatuta, handik Oribarzarreko kanpamentura joan ziren, Txurrukara. Hantxe zeuden 1980ko apirilaren 6an atentatu batean kuarteleko guardia zibil bat hil zutenean. Hilabete eskasera, kuarteleko beste agente batek bere burua hil zuen, automobil barruan. Handik gutxira, herritik alde egin zuten.

Kuartel hartan bost bat guardia zibil egoten ziren. Haien buru sarjentu edo teniente batek egiten zuen. Bertan bizi ziren, familia eta guzti, emazte eta seme-alabekin.

Herriko jendeak gogoratzen duenez, kuartelera arma-baimena, uretako motorrena edo *certificado de buena conducta* esaten zitzaiona eskuratzen joaten zen kuartelera, horrela-koetara. Guardia zibilak, berriz, batez ere kontrabandoa kontrolatzeko zeuden, orduan plaia txikian zegoen karabineroen kasetatik barra aldean, eta baserriz baserriko ibilaldietan.

Herritar batzuek haiekin izandako pasadizoak gogoratzen dituzte. Baserritar batek, egun haizetsu batean, guardia zibil baten ondoan *aizia arro* esan eta guardia zibilak zigarroa atezarzonekoa; edo oriotar bat tabernan sartu eta bi guardia zibil ikusita *buenas noches, a todos menos a dos* esan zueneko. Anekdotak dira biak, baina ondo adierazten dutenak, batetik kanpotarrak izanik ez zekitela euskaraz, eta bestetik, herritar batzuek ez zituztela asko maite. Hala ere, lasai bizi izan ziren ia frankismo osoan.

1970eko hamarkadan gauzak asko aldatu ziren, ETaren atentatuek guardia zibilen errepresioa areagotzea ekarri zuten. Guardia zibilena indar militarra da, gutxi du zibiletik. Kuartelaren ate gainean hantxe zeukaten jarrita: *Todo por la patria*. Eta *todo* hartan gauza asko sartzen ziren. Herriko zenbait jende pasara handia hartuta atera zen etxe hartatik.

Orain, ez guardia zibilik, ez kuartelik, ez etxerik... Txapeloker berdeen etxea bota dutenean, zulo misterioitsu bat agertu da, kamio azpian sartzen dena. Zuloak jendearen irudimena piztu du: batek, hura bunkerra zela, gerran bonbardaketatik babesteko; beste batek, atxilotutakoak preso edukitzeko ziegatela; besteak, han halako egurtu egin zutela, eta gazte batzuk bonbona-goma batekin elkar jotzen jarri zituztela... Iragan ilun baten kontu tristeak.

Orain, etxea lurrarekin berdinduta, frankismoaren garai-ko herriko azken aztarna nabarmena botatzearekin batera, kamioaren beste aldeko etxeetako bizilagunek asko irabazi dute: bista ederra erri aldera.

Norberak egin beharreko bidaia

Kritika Ur goiena, ur barrena

Diskoa, Olatz Zugastik 2015eko azaroan kaleratu zuen diskoa.



Olatz Zugastiren azken diskoaren azala.

Azaroko zenbakian eman genuen Olatzen disko berriaren albistea Karkaran, baita berari egindako elkarrizketa mamitsua ere. Geroztik kontzertu batzuk eman ditu Olatzek batean eta bestean. Victoria Eugenia antzokia ondo bete zuen azaroaren 29an eman zuen kontzertuan. Diskoa osatzen izan duen taldea izan zuen lagun: Ederra anaiak, David Gorospe eta Julen Alonso –pena Uhats taldeko ahotsak falta izana–.

Eta kantuetan ezagun da talde berria duela Olatzek, bate-ria eta baxuaren presentzia nabarmentzekoa da, *Mezularia* eta *Ni gatibu hartzeko* kantuetan izan ezik. Nolabait esateko, harpak eta gitarrak airean lagatzen dituzten doinuak lurre-ratzen lagundu dute, eta eskertzen da.

Ohi bezala, kanturen batzuk kutsu zeltiarra dute –Lorena Mckennitt gogorarazi digu kanturen batek–, eta besteren batek doinu mediterranearen oiartzuna du –Eleftheria Arvanitaki izan zitekeen–, baina hori bai, nola ez, Olatz Zugastiren ahots sendoa. Letrak ere bere-bereak dira, herri menderatu baten jarrerez kezkatuta. Beste batzuk, ordea, beste jite batekoak dirudite, norberaren bidea bilatzeari alegoria egiten diotenak. Diskoa entzunaz, norberak egin beharreko bidaia... ur goiena ur barrena.

RIKARDO UZKUDUN

EKILORE GARBIKETAK



626417841
ekilore@outlook.es

ARISTERRAZU
jatekxoa



Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

Gabon
TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitartekoak

943 83 06 09

KOLON TXIKI
etartegia
jatekxoa



Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

ELEKTRIZITATEA
Ander Exposito

943 831 774
600 856 728

anderexpoeletrizitatea@gmail.com

emakume arropa - neurri bereziak
kinkiladenda - barruko arropa

argine

15eko deskontua familia ugarien txartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orio
943 134 889 f argine/jantziak

kutixi
kafetegia
GOSARI GOXOAK



Aritzaga 9, 20810 Orio
Tel: 943 13 15 17

Ile apaindegia
MARIJO



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea
Tel. 943 13 47 29
ORIO

■ OSPAKIZUNA



60 urte ezkontuta

Urtarrilaren 28an, Joxe Iparragirre eta Juanita Aristigietak 60 urte bete zituzten ezkontuta. Mende erdia baino gehiago elkarren alboan, urrezko ezteiak ere atzean utzita. Urtemuga zoriontsua opa die familiak eta urte hauetan guztien izandako zoriontasunarekin aurrerantzean ere jarraitzea. Zorionak familiaren partetik eta besarkada estu bat!



■ HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Zerbait lortzeko ilusioarekin joan nintzen, baina obsesio-natu gabe. Entrenatzaileak esan zidan egiten nuen guztia niretzat zela, eta urduri ez jartzeko”

Eneko Eizagirre, judoka, Urola Kostako Hitza, otsailaren 12an.

“Orduan, baserri munduan auzolan asko egiten zen. Lanik zailena belarra moztea zen. Lagun taldeak egiten genituen horretarako. Eta badakizu, halakoetan lehiak sortzen dira.”

Juan Manuel Erasun, herri kirolari eta alkate ohia, Berrian, otsailaren 14an.

“Haien arrazoiketan ikusten den gauza bakarra mendekua da: ez dute justizia egin nahi biktimgatik; mendeku hutsa nahi dute”

Antton Gomez, Eusko Ekintzako kidea, Berrian, otsailaren 12an.



**J. MAIZA AROZTEGIA
LEIHO ISOLATZAILEAK
(PVC)**


- * INSTALAZIO OSOA
- * OSZILOBATIENTEA
- * ALUMINIOZKO PERTSIANA
- * BARRUKO ETA KANPOKO BUKAERA
- * BEIRA BIKOITZA ETA ISOLATZAILEA 4-16-4



420€



530€



630€

**TEL. 690 99 39 32
943 30 07 88**

www.carpinteriamaiza.com
info@carpinteriamaiza.com

**ALUMINIOAN ERE
AURREKONTUA
KONPROMISORIK GABE**



**Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA**

**Ubegun industriagune, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO**





obrak
proiektuak
errehabilitazioak
txostenak
eraikuntza zerbitzuak
ITEak
eraikinen mantenua

arkitektura

borja agirresarobe lopetegi
herriko-barra 6, behea
20800 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2
9 4 3 1 3 4 3 5 8
xs@xsarkitektura.com

Joana Murgiondo
Aseguru-agentea

ASEGURUAK

C C I
CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

MENDIZABAL
AROTZEGIA
Naurriko armairuak
eta egurlanak

943 831 175
645 708 491
mendi@arotzgi.net

Altzerri bidea
Beti-Alai etxea
20810 Alja-Orio

OREKA
FISIOTERAPIA

Tendinitisak
Lumbalgiak
Artrosia
Zefaleak ...

Masaje terapeutikoa,
bentosak, akupuntura,
eskuako terapia,
osteopatia

943 13 35 37
Aritzaga kalea, 11 behea

Garbine Arregi

Moda eta osagarriak

Honko plaza, 5
635 706 265

jaiegundean goizez zabalk!

GARMENDIA
INMOBILIARIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

HAIZE BERRI
taberna-jatebidea-kaleategia

Plater konbinatuak,
bokalak,
hanburgesak,
razioak,
eguneko menua...

ostiraletan pintxo pote!!

eta etxera eramateko
zerbitzua!
943 831 623
Oriko kiroldegian, Erribera 1

ITZALA

kartetan jokatzeko
aprosu

tel. 943 83 12 59

ITZIAR
kirolak

Tel. 943 83 31 03

75 m²ko **PISUA SALGAI**
Alan, Santio Errekan kokatua

Prezioa: 165.000 euro
607 510 356



Hiru logela ditu, sukalde handia, egongela eta bainugela.
Horrez gain, komunitate-lorategia eta kanpoko aparkaleku pribatua.

Zerbitzu berria
ELEKTROESTIMULAZIOA

KARELA
kiroldegia

JAR ZAITEZ **SASOIAN**
ASTEAN 20
MINUTU ARITUZ

Informa zaitetz eta eskatu zure lehenengo saioa
943 89 44 28

BPXp rt

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, odolki,
txekorra, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

HAUR ETA HELDUENTZAKO JANTZIAK

ROSA

GARBINE ARRILLAGA
ARITZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 19 43
www.facebook.com/ROSAJANTZIAK

BIOKO DESKONTUA FAMILIA UGARIENTZAT

URAITZ
larriindegia
jantzi-eragariak

Endaia, 3 Tfno: 943 83 18 97

Jaunartzeak 2016

ROSANA
-ARGAZKI ESTUDIOA-
fotorosanaarruti@gmail.com
telf: 943 83 58 45



SU KIA
TABERNA - JATEKOA

On egin eta gero... hartu KOPA eta TOPA!!

- OILASKO ERREKAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARIAK
- OGIA

TF: 943 892 129
ABAROMENDI 38, 1. BAKUA

K karkara.eus

Eskaintza berria
Eskaria

■ LARDIZABAL HERRI ESKOLA

Aiako hitzak



Aurten, euskararen egunerako, euskarazko hitz gustukoena kartulina batean idatzi eta sare batean zintzilikatu genuen ikasleok. Gurasoei Aiako hitzak ekartzeko gonbita egin zitzaion eta horiek ere zintzilikatu egin genituen. Orain, hitz horiei erabilera emateko, jolas bat egin dugu gurasoekin etxean egiteko eta hitz horien erabilera handitzeko. Aian erabiltzen diren hitz gehiago ekartzeko eskatu zaie eta jolas berriak egiten jarraituko dugu.

■ ORIOKO HERRI IKASTOLA

Inauteriak Ikastolan!



Inauteritan, ostiral arratsaldean, DBHko guztiak elkartu ginen eta mo-zorro erakustaldiaren ondoren, DBH3 eta DBH4koek prestatutako jokoetan jolastu ginen: sagar jokoan, globo leherketan, aulki jolasean, dantzan... Jarraian plazoletara hurbildu ginen, eta han HH eta LHko ikasleen inauterietako ospakizunak ikusi genituen, dantza erakustaldi bat. Bukatzeko denok batera txokolate beroa bizko-txoekin hartu genuen. Polita izan zen.

■ ZARAGUETA HERRI ESKOLA

Brianna is coming to Orio!



Hi Orio! Gure eskolan Louisvilletik -Kentucky, AEB- etorritako Brianna Berry izango dugu ingelesean mintza praktika egiteko. Urtero egiten dugu eta oso esperientzi polita eta aberasgarria bihurtzen ari da. Briannarekin LH5eko ikasleak egongo gara ia 2 hilabetez. Ipar Amerikar kultura hobeto ezagutzeko eta berarekin ingelesez aritzeko aukera paregabea izango dugu. Ea gu joaten garen hurrengoan Kentuckyra.



Olaia, Joane eta Eider

Santa Ageda bezpera eguna

Eskolako ohiturak jarraituz aurten ere Santa Ageda bezpera ospatu dugu eskola osoak Aian.

Urtero bezala taldeka banatu, makila eskuan hartu eta kantatzera abiatu ginen baserri-riz baserri. 6.mailako batzuketan 5.mailako beste batzuketan Etxetabaila eta Iruretaegia auzoan ibili ginen makila eskuan hartu eta Santa Agedako koplak kantatzen. Baserri gehienetan janari asko jan genuen, adibidez: Tortilla patata, pastak, kroketak, patatak, bizkotxoak, txokolatea bonboiak tostadak, Koka-kola, Kas naranja, ura etab..... Jende askorekin egon genin. Gutxi gora behera eguerdiko 14:00ak aldera baktu genuen goiza eskean, eta ondoren bakoitza bere etxera joan ginen. Ia urtero eguraldi txarra egiten du baina aurten eguraldiak asko lagundu digu nahiz eta momentu batean euri pixka bat egin.

Guretzat Santa Ageda bezpera egun berezia da. Aspaldi ikusi ez dugun jende askorekin egoten garelako, Aiako inguruak eta jendea hurbilagotik ezagutzen ditugulako, asko jaten dugulako, lagunekin egoten garelako eta oso ondo pasatzen dugulako.

Gure herriko jendea animatu nahi dugu hurrengo urtetan makila eskuan hartuta gurekin kantatzera etortzeko, oso ondo pasatzen delako. Ohitura hau ez galtzea nahi genuke baina horretarako jendeak parte hartu behar du, beraz, hurrengo urtean espero zaituztegu.

Erabakia oriotarren esku



Maiatzeko hauteskundeetan oriotarrak udaletxean bozkatzten. KARKARA

Otsaileko lehen ostegunean, hilaren 4an, Herritarrak Ahalduztzeko Legea tramiterako onartu zuten Eusko Legebiltzarrean. Urrats bat aurrera eman zuen arren Kontsulta Legeak, ika-mika iturri izan da legebiltzarreko taldeetan eta txoko honetara ere ekarri nahi izan dute gaia.

Herri mailako kontsulta konpetentzia guztiz munizipala da, legebiltzarrean onartu duten Kontsulta Legetik desberdintzen den galdeketa.

Orion hutsetik hasteko beharra

Orion ez da sekula herri galdeketa egin. Inoiz ez. Hutsetik hasi behar da galdeketa egin behar bada, guztia baitago zehazteke. Herritarren hitza eta erabakia lotesle izateko zer baldintza bete behar diren hitzartu behar da, besteak beste.

Herritarren parte hartzea sustatzeko asmoa alderdi guztiek dute eta hori da lehen urratsa

Lau alderdiak kontsultarako prest

Legealdiari begirako asmoak idatzi ohi dituzte hauteskundeetarako programetan, eta xede horietan tokia zuen herritarrei ahotsa emateak.

EAJk, esaterako, udal kudeaketan herritarren parte hartzea sustatzeko helburua zuela aipatu zuen. *Herritarren eta Udalaren arteko gertutasuna bilatu nahi ditugu, politika modu parte-hartzaileagoan egiteko. Whatsapp bidezko telefono-buzoi bat abiaraziko dugu, herritarren ekarpenak lehenbait lehen jasotzeko. Gai ezberdinei buruzko erabakiak era kolektiboan hartzea, parkeren baten estaltzea, esaterako. Ze parket? Zein modutan?, zioen testuak, hitzez hitz.*

EH Bilduk ere politikariek protagonismo neurtua izango zutela aipatu zuen, *alkatea eta zinegotziak eragile ondoan egongo dira, ondoan, ez lehen planoan. Eragileak laguntzea da beraien lana, baina gaur arte bezala prota-*

gonismo neurtua izango dute. Denen ez asmatu arren, denena entzungo zutela aipatu zuten.

Orainek ere parte hartze hori du xede. *Oriotarrak izan dira eta izango dira gure lehen tasuna, zioten iazko maiatzean. Eta gaineratu zuten: zure esku dago bai botoa ematea, eta baita Orio hobetzen parte hartzea ere, denon onerako.*

PSE ere bat dator herritarren parte hartzearekin. Herritarren ideiak kontuan hartu behar direla aipatzen zuten hauteskunde programan, bestak beste, turismoaren esparruan.

Asmotikekitera

Guztiak dute asmoa, nonbait. Denak daude prest oriotarrei hitza emateko. Kontua da nola erabaki behar dela eta hor, berak ez ezik, legeak ere zeresana duela. Asmoa edukita, baldintzak adostea da galdeketa egiteko bigarren urratsa.



EAJ

Herritarrei kontsulta egiteko bidea

Herri kontsultak, udaleko Barne Araudian oso modu zabalean arautzen dira egun. Gure ustetan, Herri kontsulta egiteko araudia kasuan kasu zehaztu behar da. Hau da, zeintzuk bozkatu dezaketen, zein izan behar duen partaidetza minimoa kontsulta hori erabakigarria izateko eta abar.

Aurreko legealdian aukera bikaina galdu zen. Gure taldeak hondakin bilketen inguruan galde keta bat antolatzeke eskaera egin zion orduko gobernuari, baina ez genuen erantzunik jaso. Formula horretan sinesten ez duela pentsatuko dugu, aukera izanda, ez baitzuen ezer egin.

Herriari galdetu behar zaio, noski. Baina horren atzetik ondo lotutako antolakuntza bat izatea ezinbestekoa da. Galdeketa batek, hainbat kostu ekarriko ditu eta hau nola bideratuko den ondo planifikatu behar da, egiten den ahalegin hori alferrikakoa izan ez dadin.



Orain

Herri galdeketa

Hauteskunde garaietan politikarien ahotan maiz erabiltzen diren hitzak herritarra eta erabakitzea dira. Ez dira atzean gertatzen parte-hartze eta proiektuak. Lau hitz horiekin esaldi politikoak eta bertso bikainak entzuten ditugu. Baditugu gaiak eta badakugu zer landu. Hor daude, adibidez, frontoia eta parke estalia. Gure ustez, informazio osatua eta osoa emanda eta herritar guztiak beren kokapenak dakartzaten onuren eta kargen jakinaren gainean egonda, bozketa bidez erabaki behar dira. Sarrera data 2015eko abenduaren 11n duen idazkian -Orioko Udaleko Hirigintza batzordeburuari zuzendua-, idazkaritzari herri kontsultarako prozedurari buruzko txostena egitea eskatu zion Orain taldeak, gero Hirigintza batzordean aurkezteko eta talde guztion artean eztabaidatzeko. Ez dugu erantzunik jaso. Orain taldeak frontoiaren kontsulta martxan jartzea eskatu du eta eskatzen jarraitzen du.



EH Bildu

Kontsultaren beharra

Frontoi eremuko birmoldaketa, frontoi berriaren kokapena, industrialdea bai ala ez... Gai hauetaz hartu beharreko erabakiak eragin zuzena izango dute orioko etorkizunean. Nola erabaki? Lau pareta tartean 13 zinegotzien artean, edo herritarrekin konpartituz eta beraien iritsia entzun ondoren. Udal politika garatzeko garaian ikuskera zabaldutako behar dugu, alderdiek ez dute herritarren nahi guztiak isladatzen, EH Bilduk herrian eta herritarren parte hartzeak dakarren onuraz sinesten dugulako, horrelako gaiak herritarrekin konpartitzekoaren aldekoak gara, kontsulta da horretarako ikusten dugun aukerarik egokiena. Kontsulta egiteko modu eta aukera ezberdinak daude, badira horretarako adituak eta baita urrutira joan gabe esperientziak ere, udalaren gehiengoak kontsultaren alde badago, adostu ditzagun gaiak, prozedurak eta bitartekoak. Denok irabaziko dugu.



PSE-EE

Herri galdketa

Herri galdeketa batek nolakoa izan behar duen jakitea ez da baste erraza, hainbat faktore hartu behar baitira kontuan herritarren ahalik eta argiena eta zuzenena izan dadin, erabakitzeko ulerterraza izan dadin.

Alderdi guztien artean mahai bat osatu beharko genuke, kontsentsuz erabakitzeko herri galdeketen oinarriak zeintzuk izango diren. Horretarako kontuan hartu beharko genituzke horrelako kontsultetarako legeak jartzen dituen mugak eta urratsak. Oriotarren parte hartzea funtsezkoa da eta, horretarako, udalak kanpaina informatibo argiak eta zuzenak egin behar ditu, iritzirik gabe, aukera guztiak datuen bidez informatuta eta oriotarren dudak argituta.

Orioko PSEtik edozein herri galdeketa babesten dugu, herritarrei zuzenean eragiten dieten gaien aurrean ahotsa eta erabakia emateko modu bakarra baita.



Politika

2.709.518 euroko udal aurrekontua 2016 urterako

Otsailaren 3an onartu zen EAJren aldeko botoekin 2016 urterako 2.709.518 euroko udal aurrekontua. Diru horretatik zatirik handiena Aiako Lardizabal Eskolako eraikin berrira bideratuko da, 404.000 euro. Hori da urte honetako inbertsiorik handiena. Santio Erreka auzoko hiritartze edo urbanizazio lanak egiteko 60.000 euro erabiliko dira eta herribideen konponketara beste 60.000. Lardizabal aurreko kirol pista egokitu ahal izateko 48.000 euro erabiliko dira eta irisgarritasuna bermatuko duten obrak egin ahal izateko 20.000 euro erabiliko dira.

@karkara.eus/aia/1455182125380

Gizartea

Espaloien garbiketa sistematizatu nahi du Udalak

Herriko espaloien garbiketa sakona sistematizatu nahi du Orioko Udalak eta, horretarako, kale-garbiketaren zerbitzua lehiaketara aterako du laster. Udalarantz garrantzitsua da garbiketa sakon hori arautzea eta sistematizatzea, eta orain indarrean dagoen kontratuan ez dago lan hori aurreikusita. Azken asteetan hainbat proba egin dituzte herriko kale batzuetan. Pelotari, Eusko Gudari eta Ibai-ondo kaleetako espaloiak garbitu dituzte.

Kultura

Balea Egunerako antzezle beharra daukate

Aurten, laugarren edizio honetan, berriz ere lña ke Irastorzak gidatuko du antzerkia. Bilerak egiten ari dira formatua zehazten joateko eta nondik norakoak finkatzeko. Orain, herri antzerkian parte hartuko duten herritarren bila dabilta. Otsailaren 29an bukatuko da izena emateko epea. Horretarako kultur etxera joan behar da 9:00etatik 13:00etara edo 16:00etatik 20:00etara. Emailaz ere egin daiteke, kultura@orio.eus helbidera idatzita.

Gizartea

KARKARA gero eta jende gehiago sartzen da mugikorretik

Hekimeneko -euskal hedabideen elkarte- hedabide sarearen parte da Tokikom, eta Karkara, Tokikomen parte. Hamazortzi milioi bisita baino gehiago izan zituzten Hekimeneko webguneek 2015ean. 2011tik %73,4ko igoera izan du Hekimen elkarteko webguneen trafikoak. Telefonoetara joan da interneten erabileraren zati handi bat.

HILA IRUDITAN



HASI TXIOKA

Urola Kostako Hitza @ukHitza · 4 ordu
Iñigo Perona: "Pentsatzeko modua aldatu behar da informatika ulertzeko"
urolakosta.hitza.eus/2016/02/17/ini... #Orio

rikardo uzquidun(e)k Bertxiotua
Garbiñe Manterola @garbimari · ots. 1
irakurtzekoak @daurmith en txioak. Jendeari zer pentsatua eman diezaiera

Jabier Zabaleta @ja2er · ots. 3
Aia munduko tokirik euskaldunena zela uste genuen; hala da, igual baina han ere txakurrak hanka hutsik :-)

Mirene @MireneElizondo · ots. 8
Etxera iritsi eta aitak realan abestia jartzea 😞



Gizartea

Elkano auzoko frontoia eta elkartea inauguratu dituzte

Otsailaren 21ean erabili zen lehendabizikoz Elkano auzoko frontoi berria. Emakumezkoen pala txapelketarekin eman ziren lehen pilotakadak frontoian. Partiduaren ondoren inaugurazio ekitaldia egin zen. Bittor Oroz Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako Sailburuordea, Nekane Arrizabalaga Aiako alkatea, Xabier Txurruka Zarauzko alkatea eta Josune Lazkano lehendakaria izan dira inaugurazioan.

Auzotarren *ametsa bete* dela azpimarratu zuen Arrizabalagak, aurrerantzea frontoia eta elkartzeko tokia izango dute.

@karkara.eus/ala/1456124134704



Gizartea

Jone Olaskoaga da kanpineko zuzendari berria

Jone Olaskoaga Balerdik lortu du udal kanpineko hautaketa prozesuko emaitza onena. Oriotarrak 10, 3 puntu lortu ditu eta bera izango da Orioko Udalaren pertsonalean hutsik zegoen lanpostua beteko duena. Bera izango da zuzendaria. Olaskoagaren atzetik, 6,50 punturekin, Marina Eizagirre Iruretagoienea sailkatu da. Lehiaketa prozesuan hainbat lagun baztertuak izan dira ikasketekin lotutako agiriak ez erakusteagatik, maila jakin bat dutela ez egiaztatzeagatik. Lagun bat elkarriketara aurkeztu ez zenez punturik gabe gelditu da.

@karkara.eus/orio/1456237241031

Kirola

Eneko Eizagirre txapeldunorde

Euskadiko txapeldunorde izan zen otsailaren 6an Gasteizen jokatu zen judoko junior txapelketan. Aurreko asteburuan Gipuzkoako txapelketa jokatu zuen Eizagirrek Hernanik, eta han ere bigarren sailkatu zen 90 kilo azpiko kategorian.

Kirola

Kostatako garaipena Kaanachek

0:51:47 denborarekin Barakaldoko duatloia irabazi zuen Hossain Kaanachek. Pixkanaka lasterketa garrantzitsuagoak izango ditu, Euskadiko duatloi txapelketan hartuko baitu parte martxoaren 6an, Basaurin.

Politika

Diru laguntzak aisialdirako

2016ko Kultura, Gazteria, Ingurumen eta Aisialdi jardueri diru-laguntzak emateko deialdia ireki du Udalak, pasa den urtarrilaren 15eko Kultura eta Turismo batzordean adostu bezala. Deialdiak aurkezteko azken eguna martxoaren 18a da.

Kirola

493.000 euroko aurrekontua

Normaltasunez joan zen aurtengo batzar orokorra. 2016 urteko aurrekontua onartu zen -493.00€- eta pasa den urteko errepasoa ere egin zen, kirol emaitzak erreparatuta eta alderdi ekonomikoa kontuan hartuta.

Kirola

Peñaren beste garaipen bat

Antzuolako 8 Miliak lasterketan bigarren aldiz hartu du parte Sara Peña oriotarrak. Irimorako igoeran lortu du abantaila eta jaitsieran tarte txikitu arren, bera izan da azkarrena. 1:32:17ko denborarekin helmuga zeharkatzen lehena izan zen.

Kirola

Amenabar, lehen irabazlea

Otsailaren orain hasi berri da urte honetako dardo denboraldia. Hamahiru izan ziren hasiera horretako protagonistak, eta horietatik onena Jon Amenabar oriotarra izan zen. Urteko bigarren hitzordua otsailaren 20an izan zen, Aurreran.

AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokairuan

- Apartamentua alokagai Orio erdigunean. Altzariz jantzita dago apartamentua eta konz- tratuak urte batekoa edo gehiagokoa izan beharko du. Tf: 648614769 -Juli-.
- Lur azpiko garaje-linea alokairuan, Orion, Kaia kolean. Prezioa: 65 euro. Tf: 675711267 -Beñat-

Salgai

- Intxaurrak: Tamaina oneko Aiako intxaurrak etxeraino eramanda. 3k 14€. 4k 18€. 5k 20€. Pati deitu urtarilaren 28tik aurrera: 94313 21 31 edo 634 424 887
- Pisua salgai Aristerra- zu Aian -70metro-. 2 logela, komuna, saloi

handia eta sukalde han- dia. Garajea eta trasteroa prezioan barne. 120.000€ Egoera oso onean, ia berria. Interesa baduzu deitu 628271211 telefonora.

Lan eskariak

- Ikasketaz ingeniari mekanikoa eta 30 urteko esperientzia soldadore lanetan. Gaztelera, Ukrainera, Rusoa eta Polakoa hitz egiten ditut. Langilea naiz eta lan bila nabil. Edozertan lan egiteko prest nago. Tf: 602628206 -Bohdan-
- Arratsaldetan lana egi- teko prest, bereziki eda- detuen zaintzan.

Emakumea, euskalduna eta oriotarra. 14 urteko esperientzia alor hone- tan. Mari: 664834388

- Enpresa ekintzaileak lana eskaintzen du, negozio modu berri batea lan egin nahi duten autonomo komertzialentzat. Interesatuak, deitu de- zala telefono zenbaki honetara: 699382673. -Loli-

Elkarbanatzeko

- Lanerako bulego handia daukagu, Orion, eta elkarbanatu egin nahiko genuke freelance edo etxetik lan egiten duen jendearekin. Tf: 656309237 -Imanol-.

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	08:55 eta 21:25	02:47 eta 15:13	
02	09:57 eta 22:37	03:45 eta 16:17	
03	11:21 eta	04:59 eta 17:34	
04	00:03 eta 12:45	06:19 eta 18:48	
05	01:16 eta 13:50	07:26 eta 19:48	
06	02:12 eta 14:40	08:21 eta 20:39	
07	03:00 eta 15:25	09:08 eta 21:24	
08	03:43 eta 16:07	09:51 eta 22:07	
09	04:26 eta 16:49	10:34 eta 22:50	
10	05:08 eta 17:31	11:17 eta 23:33	
11	05:51 eta 18:14	12:00 eta	
12	06:35 eta 18:58	00:18 eta 12:44	
13	07:22 eta 19:47	01:04 eta 13:31	
14	08:14 eta 20:41	01:55 eta 14:23	
15	09:15 eta 21:47	02:52 eta 15:23	
16	10:31 eta 23:10	04:01 eta 16:35	
17	12:01 eta	05:24 eta 17:59	
18	00:36 eta 13:21	06:48 eta 19:15	
19	01:46 eta 14:21	07:55 eta 20:14	
20	02:39 eta 15:07	08:45 eta 20:59	
21	03:21 eta 15:44	09:25 eta 21:37	
22	03:57 eta 16:17	10:00 eta 22:11	
23	04:30 eta 16:47	10:31 eta 22:43	
24	05:00 eta 17:16	11:02 eta 23:15	
25	05:30 eta 17:45	11:33 eta 23:47	
26	05:59 eta 18:14	12:04 eta	
27	07:30 eta 19:45	00:19 eta 13:36	
28	08:02 eta 20:18	01:53 eta 14:10	
29	08:37 eta 20:56	02:30 eta 14:48	
30	09:20 eta 21:44	03:13 eta 15:34	
31	10:18 eta 22:51	04:08 eta 16:34	

ZAINTZAKO BOTIKAK

MARTXOA

- 1ean, Lasa
- 2an, G. Artiñano
- 3an, Azaldeg
- 4ean, Zulaika
- 5ean eta 6an, Iriarte
- 7an, Etxeberria
- 8an, G. Artiñano
- 9an, Azaldeg
- 10ean, Zulaika
- 11n, Lasa
- 12an eta 13an, Larrañaga
- 14an, G. Artiñano
- 15ean, Azaldeg
- 16an, Zulaika
- 17an, Iriarte
- 18an, Larrañaga
- 19an eta 20an, Zulaika
- 21ean, Lasa
- 22an, Zulaika
- 23an, Iriarte
- 24 eta 25ean, Etxeberria
- 26an, Lasa
- 27 eta 28an, Etxeberria
- 29tik 31ra, Lasa

Azaldeg: Urdaneta kalea, 8. 94313 31 83 Zarautz

Etxeberria: Gipuzkoa kalea17. 94383 23 98 Zarautz

Mutiozabal: Kale Nagusia, 12. 94383 29 70 Zarautz

Larrañaga: S. Frantzisko, 16. 94313 38 14 Zarautz

Lasa: Herriko plaza. 94383 09 36 Orio

G. Artiñano: Zigordia kalea, 17. 94313 40 19 Zarautz

Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea. 94313 29 83 Zarautz

Zulaika: Bizkaia kalea, 41 94313 39 94 Zarautz

AGENDA

Orio

Antzerkia

- Martxoaren 4ean, Datorren urtean ho- beto antzerkia, kultur etxean, 22:30ean.

Feministorioa

- Martxoaren 7an, saregileekin tertulia, 19:00etan, Kultur Etxean.
- Martxoaren 8an, kontzentrazioa pla- zan 19:00etan. Ondoren, emakumeen afaria Balea Elkartean.
- Martxoaren 10ean, zine foruma Kultur Etxean, 19:00etan. Angeles de hierro.
- Martxoaren 11n, pintxo-pote feminista, Kolon Txikitik 19:00etan.

Kontzertuak

- Martxoaren 18an, Iñigo eta biok, Goza- tegiz, musika kontzertu akustikoaren

estreinaldian, kultur etxean, 22:30ean.

Bingoa

- Asteazkenero, Bingoa, kultur etxean, 16:00etatik aurrera.

Pintxo potea

- Ostiralero, Pintxo potea, 19:00etatik aurrera.

Aia

Belar-bola plastikoen bilketa

- Martxoaren 8an, Belar-bolako plastikoaren bilketa zerbitzua.

Podologoa

- Martxoaren 19an, podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Tf: 94313 11 44

GEHIEN AXOLA ZAIZUNA BABESTEKO

HEMEN
GAUDE

Bulego berria
SANTI BARRANCO
Endaia Enparantza, 1
20810 Orio
Telf: 943 111 600 - 688 714 869
sbarranco@segurosbilbao.com





keinu lorezaintza

Edozein txoko lorategi bihurtzeko aukera

Lorategien diseinutik hasita ezarpen, mantenu eta beharrezko kudeaketa lanak

*Eusko gudari 11
647028485
Orio*

JAR EZAZU
PUBLIZITATEA
·KARKARAN·

688 859 682

idurre